BARRUAN, ZURE HERRIKO ALDIZKARIA




# EZTABAIDA: TELEBISTA PUBLIKO ETA PRIBATUAK /7

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2001eko abenduaren 14a • II. urtea • 45. zenbakia • DOAN BANA



**Goienka2a**
Bertso Txapelketa Nagusia: nork jantziko du txapela?

**KIROLA**
Xabier Ubera pilotari elgetarrak DV Sariko finala jokatuko du /10

**GERMAN KORTABARRIA**
*"Euskal sindikatu izateak eman dio nortasuna ELAri"* /8-9

ASTEKO GAIA: APARKALEKUEN ARAZOA

# Auto asko eta leku gutxi aparkatzeko

Arrasaten 25.000 biztanle inguru daude, hamaika mila ibilgailu daude erroldatuta eta horiendako bederatzi mila aparkaleku publiko besterik ez dago.

Garajeak eta aparkaleku pribatuak 4.000 inguru dira; baina horietariko asko erdigunetik urruti daude. Bestalde, Arrasatek milaka lagun hartzen ditu astegunero, herritik kanpoko jende askok han egiten duelako lan.

Argi dago, hortaz, gidariek arazo bat dutela. Izan ere, debagoiendarrok geroago eta auto gehiago daukagu, baina aparkatzeko, lehengo leku kopuru bera.

Arrasateren egoera Debagoieneko txarrena da, baina ez bakarra. Bergaran eta Oñatin antzeko egoerak bizi dituzte. **/2-3**

# Lastertasun Handiko Trenaren aurka egiteko deia egin dute zapaturako

AHT Gelditu Elkarlana plataformak Lastertasun Handiko Trenaren aurka protesta egiteko deia egin du biharko (zapatua). Manifestaziorako deia Euskal Herri osora zabaldu dute eta Mondragoen izango da, 17:00etan hasita. Talde horretan hainbat sindikatu, kultura eta ekologista talde, indar politiko eta proiektuak zuzenean eragiten dien udal daude sartuta. Proiektua modu inposatzailean bultzatu dela diote taldeko kideek. "Bat ere informaziogardentasun barik eta biztanleriaren eta udalerrien interesak eta nahiak kontuan hartu barik". Egitasmoari aurkeztutako alegazioak ere kontuan hartu ez direla diote. Horregatik, manifestazioan parte hartzeko deia zabaldu die herritarrei.



UBANE MADERA

## Debagoieneko gimnastak, bikain

Eibarko Ipurua taldean ari diren Ane Miren Fernández, Aintzane Narváez, Idurre García eta Leire Lasa Debagoieneko gimnastek emaitza bikainak lortu zituzten aste bukaeran Gasteizen jokatutako Espainiako Txapelketan. Ane Miren Fernández bergararrak eta Aintzane Narváez antzuolarrak urrezko domina eskuratu zuten senior mailako soka eta pilotako ariketetan. Gazte mailako Ipurua taldeak, berriz, hirugarren postua eskuratu zuen taldekako sailkapenean. Hortaz, Leire Lasa bergararrak eta Idurre García arrasatearrak brontzezko domina eskuratu zuten. /11

DEBAGOIENA

## Zailtasunak kirol txartel bateratua indarrean jartzeko

Datorren urte hasierarako Debagoieneko kirol txartel bateratua izango genuela uste bagenuen ere, badirudi ez dela horrela izango. Mondragoeko Udalak zalantzak ditu. Aurrera egin baino lehen, jakin gura du zenbatek erabiliko luketen txartel bateratua, eta zenbat egongo liratekeen prest diru gehiago ordaintzera. Horretarako, inkesta egin gura du, eta gero, erabakia hartu. **/3**

## Egunik hotzena




Eguazten goizean, zuri-zuri agertu zitzaizkigun bazterrak, sekulako izotza egin zuen eta. Termometroak lau gradu zero azpitik markatu zuen. Urteko egunik hotzena.

Giokela, Okela Garbia Muturretik Buztanera
Giokela, Berme Osoko Okela
Giokela, Kalitatezko Okela

OÑATI
Txantxiku

ANTZUOLA
J. Mujika

BERGARA
Urcelay
J. Leturia
L. M. Rezola

ARRASATE
J. Elortza
J.R. Otamendi
Salaberria
Agirre- Etxe

Ez guk, Certicar-ek ziurtatua

Giokela
GURE KALITATEA

Zer jan, hura izan.

HERRIZ HERRI/4-5 • GUTUNAK/6 • IRITZIA/7 • KIROLA/8-9 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • BERRI-ZAKUA/19 • ZERBITZUAK/20 • DENBORA-PASA/21

# Auto asko eta lek

## Debagoieneko herri gehienetan aparkatzek




LEIRE KORTABARRIA

Matematikak gidari debagoiendarron kontra daude: Arrasaten 25.000 biztanle inguru daude, hamaika mila ibilgailu daude erroldatuta eta horiendako bederatzi mila aparkaleku publiko besterik ez dago. Garajeak eta aparkaleku pribatuak 4.000 inguru dira; baina horietariko asko erdigunetik urruti daude. Bestalde, Arrasatek milaka lagun hartzen ditu astegunero, herritik kanpoko jende askok han egiten duelako lan. Argi dago, hortaz, gidariek arazo bat dutela. Izan ere, debagoiendarrok gero eta auto gehiago daukagu, baina aparkatzeko, lehengo leku kopuru berbera.

Arrasateren egoera Debagoieneko txarrena da, baina ez bakarra. Bergaran eta Oñatin, beste neurri baten, baina antzeko egoerak bizi dituzte.

**LUR AZPIKO APARKALEKUAK**

Debagoieneko bi herri handienek, Arrasatek eta Bergarak, aparkatzeko egokitutako eraikin bana dute. Arrasatekoak bi solairu ditu, 160 ibilgailurendako lekua, eta orduka ordaintzen da; eta, Arrasateko Udaleko Zerbitzu Sailak dioskunez, "zabaldu zenetik hona, aparkalekua behin baino ez da bete". Bergarako lur azpiko aparkalekuak 63 auto har ditzake; erabilpena doakoa da, eta, Arrasateko kasuan ez bezala, jendeak dezente erabiltzen du zerbitzu hori.

Kontuak kontu, Arrasateko, Bergarako eta Oñatiko udalek lur azpiko zein kanpoko aparkalekuak egitearen aldeko apustua egin dute, kaleko aparkaleku faltak dakarren arazoa konpontzeko.

**JARRERA ARAZOA**

Debagoieneko herri txikiagoak ez dira arazotik libre geratzen. Antzuolan 1.000 ibilgailu daude erroldatuta. Egunean ez da arazorik izaten, baina bai gau partean, kanpoan lan egiten dutenak etxera bueltatzen direnean.

Dena dela, herri txikiagoetan, leku faltagatik baino, gidarion jarrerarengatik sortzen dira eztabaidak: Elgetan, adibidez, arazoa da "gidari guztiek herri erdialdean aparkatu gura dutela, taberna parean edo autobus geltokiaren ondoan", dio Udalak. Hortaz, badirudi guztia ez dela leku arazoa; gidariek ere, batzuetan, ohiturak aldatu beharko lituzkete.

# ku gutxi

## o leku eskasia dago



**SOLUZIO AZKARRA** Aparkatzeko leku aproposak gutxi daude, baina aparkatzea debekatuta daudenak, berriz, piloa. Autoa uzteko leku onaren faltan, zer egin? Bada, gero eta sarriago, behar ez den lekuan utzi: espaloi gainean, aparkatzea debekatuta dagoen kale edo pasabideetan, aparkatuta dagoen beste auto bati irteera galarazten, bigarren ilaran… Horrek, ordea, ondorioak ere izan ditzake: Bergaran 3.500 isun ipini zituen iaz Udaltzaingoak; horietatik %97, gaizki aparkatzeagatik. Oñatin 600 bat isun ipini zituzten arrazoi beragatik. Eta Mondragoen, hilero-hilero, 90 bat auto eramaten ditu garabiak. Merezi ote du arriskatzeak?

ARRASATE

### Ibarreko herrien artean, egoera larriena

Arrasatek bizi du egoera larriena, batik bat, astegunetan, jende ugari joaten delako hara. Erroldan 11.000 ibilgailu daude; horiendako 9.000 leku besterik ez dago. Beste 4.000 aparkaleku pribatu daude Arrasaten. Laubide kaleko lurpeko aparkalekua behin baino ez da bete zabaldu zenetik hona. Gehiago egiteko asmoa badago, baina noiz eta zenbat zehazteke dago.

Auto kopurua: **11.000**
Aparkaleku kopurua: **9.000**

BERGARA

### Irala kalean aparkalekua egingo du Udalak

Udalaren datuen arabera, 7.500 ibilgailu daude erroldatuta Bergaran, eta 5.400 aparkaleku. Lur azpiko aparkaleku bat dago, doakoa da eta 63 autorendako lekua eskaintzen du. Orain hurrengo, Irala kalea urbanizatu eta azpian solairu bakarreko aparkaleku bat egiteko asmoa du Udalak; obretarako baldintzak azaro bukaeran kaleratu ziren.

Auto kopurua: **7.500**
Aparkaleku kopurua: **5.400**

OÑATI

### Hiru aparkaleku egiten hasiko dira laster

Oñatiko auto guztiak batera irtengo balira, 3.180 bat aparkatzeko leku barik geratuko lirateke. Asteburu eta jaiegunetan beste 220 leku prestatzen dira. Udalak aurreikusita du, ordea, hiru aparkaleku eraikitzea: bata, lur azpikoa, handiena, kiroldegi inguruan; bestea, Unibertsitate aldean, 70 autorendako; azkena, Arantzazu kale inguruan.

Auto kopurua: **5.100**
Aparkaleku kopurua: **1.920**

Tapizeriak
Moketak
Alfonbrak
Gaston y Daniela
Gazteendako, umeendako eta ume jaioberriendako *altzariak eta dekorazioa*
Kruz Gallastegi, 3 • 943 76 07 37
BERGARA

## *Bailaran, labur*

LEHIAKETA

### Errusiar batek irabazi zuen Mondragoeko akordeoi lehiaketa

Mikhail Burlakov errusiarrak irabazi zuen joan den asteburuan Arrasaten jokatutako Nazioarteko IX. Akordeoi Lehiaketa. Irabazlearen atzetik beste bi errusiar sailkatu ziren eta parte hartu zuen euskal ordezkari bakarrak, Edurne García irundarrak, bosgarren saria jaso zuen. Ikuslearen sariari zegokion Kutxa trofeoa ere Edurne García irundarrak eraman zuen. Nazioarteko lehiaketaz gain, Gipuzkoako hogeita bigarren lehiaketa ere egin zen. Infantil mailako irabazlea Estitxu Pinatxo izan zen, junior mailan Naiara de la Puente, eta senior mailan, Javier Arozena. Antolatzaileek oso maila ona egon dela adierazi dute, batez ere, Gipuzkoako lehiaketan. Lehiaketa Amaia antzoki berrituan izan zen. /USOA AGIRRE

PROTESTA EKITALDIAK

### Espainiako Konstituzioaren aurkako hainbat ekitaldi egin ziren ibarrean

Joan den eguenean, Konstituzio egunean, hainbat protesta ekitaldi antolatu zituzten irakaskuntzan Segi erakundeak eta Ikasle Abertzaleak-ek Arrasaten, egun horren eta Espainiako Konstituzioaren aurka. Espainia osoan jaieguna izanik ere, hitzaldiak, herri eskolak eta beste hainbat ekitaldi antolatu zituzten Konstituzio eguna errefusatzeko. Ibarreko zenbait ikastetxetan eskolara joan ziren hainbat ikasle eta irakasle, eta ohiko eskolak ez eman arren, hitzaldiak eta beste hainbat ekintza egin zituzten. Arizmendi ikastolako Batxilergoko ikasleek eta irakasle talde batek, esaterako, hainbat hitzaldi eta bestelako ekitaldi antolatu zituzten. Goi Eskola Politeknikoan ere izan ziren hitzaldiak, eta ikasleek konstituzioa, irakaskuntza eta desobedientzia moduko gaien inguruan eztabaidatu zuten. /USOA AGIRRE

KONGRESUA

### Frantziskotarrek Amerikan egindako lana aztergai izan dute Oñatin

Euskal frantziskotarrek Amerikan izan duten eragina aztertu dute oraingo astean, Oñatiko Unibertsitatean, mundu osotik etorritako adituek. Eusko Ikaskuntzak antolatutako nazioarteko kongresua izan da eta Arantzazuko frantziskotarren V. mendeurrena ospatzeko ekitaldien barruan antolatu dute. Kongresuak bi egun iraun du. Guztira, 40 bat aditu inguru hurreratu dira Oñatira. Mundu osotik etorri dira, baina, batez ere, Amerikatik. Hitzaldiak eta mahai-inguruak izan dira nagusi. Euskal Herriko frantziskotarrek XVII, XVIII, XIX. eta XX. mendeetan egindako misioak izango dituzte aztergai. Oñatiko alkateak, Angel Iturbek, hasi zuen kongresua martitzenean, unibertsitatean. /GORKA ETXABE

KIROL TXARTELA

### Mondragoeko Udalak ez du oso garbi ikusten kirol txartel bateratua

Datorren urte hasierarako Debagoieneko kirol txartel bateratua izango genuela uste bagenuen ere, badirudi ez dela horrela izango. Hasieratik, Eskoriatzako Udalak proiektuan parte ez hartzea erabaki zuen. Eta orain, Mondragoeko Udalak zalantzak ditu. Aurrera egin baino lehen, jakin gura du zenbatek erabiliko lukeen txartel bateratua, eta zenbat egongo liratekeen prest diru gehiago ordaintzera. Horretarako, inkesta egin dezala eskatu dio Mondragoeko Udalak Mankomunitateari. Baina Mankomunitateak ez du inkestarik egingo. Datorren eguaztenean, batzarra egingo dute Debagoieneko Kirol zinegotziek eta teknikariek Mankomunitatean. Batzar horretan erabakiko dute aurrera segitzen duten proiektuarekin. Hori bai, Arrasateko Udalak inkesta bat egingo du mondragoetarren artean. Inkesta horretan kirol txartel bateratuaren aldeko iritzia jasotzen badute, aurrera egingo dute. Bestela, ez. /GORKA ETXABE

**BERGARA** PREBENTZIO NEURRIAK

# Legionella prebenitzeko azterketa kirolguneetan

*Kiroldegian eta igerilekuan legionellarekiko foku izan daitezkeenak antzematea da helburua*

MONIKA BELASTEGI

**Azterketa egina dago, baina oraindik Udaleko Kirol Zerbitzuak ez du emaitza jaso. Azterketa egiteko arrazoi nagusia prebentzioa da.**

Kiroldegian eta igerilekuan egin dute legionella prebenitzeko azterketa hori. Ez legionella antzeman dutelako, gaixotasuna prebenitzeko baizik.

Iaz, bi legionella kasu agertu ziren Euskal Herrian: Arbizuko eta Laudioko kiroldegietan. Hortik, Gipuzkoako hainbat udalek gai horren inguruan azaldutako kezka eta maiatzaren 31n azterketa egiteko hartutako erabakia.

Legionella fokuak aire egokituaren eta ur beroaren instalazioetan azaltzen dira, batez ere. Bergararen kasuan, aire egokiturik ez dagoenez, azterketa ur beroaren instalaziora mugatu da. Irati enpresak egin duena, hortaz, hau da: ur beroaren hoditerian legionella azaltzeko foku kritikoak zein izan daitezkeen aztertu, gero, beharrezko neurriak hartzeko. Bestalde, Osasun Ministerioak uztailean ezarritako prebentzio neurriak bete behar dituzte orain herriko kirol instalazioek. Besteak beste, bi hauek: ur zirkuituan ura 70ºra jartzea; legionellaren bakteria tenperatura horretan suntsitu egiten da. Eta dutxa-buruak desinfektatzea.



ARTXIBOA

Igerilekuetan ere egingo dute azterketa.




**OÑATI** URTEURRENEKO OSPAKIZUNAK

# Ulma enpresak, 40. urteurrenean, hainbat ekitaldi antolatu ditu

*Gaur, egubakoitza, profesional mailako pilota partidua jokatuko da*

AINTZANE IRIZAR

**Oñatiko enpresa nagusienetakoak, Ulmak, 40 urte bete ditu. Hori dela eta, ekitaldi mordoa antolatu dute abenduko bigarren hamabostaldirako.**

Gaur gauean hasiko dira Ulmak urteurrena ospatzeko antolatu dituen ekitaldiak. Izan ere, 22:30ean, profesionalen arteko pilota partidua izango da Zubikoako frontoian. Capellan eta Goñi III.a Titin III.a eta Zezeagaren aurka arituko dira.

Datorren eguenean, abenduaren 20an, mendiaren gainean hitzaldia izango da institutuan, 19:30ean. Hantxe izango dira Edurne Pasaban, Josune Bereziartu eta Sebastian Alvaro, *Al filo de lo imposible* saioko zuzendaria. Asier Aranguren kazetari aretxabaletarra arituko da moderatzaile. Hilaren 21ean, umeendako kalejira egingo dute Trikimako taldekoek; arratsaldeko 19:00etan, Ulmako hildakoen alde meza egingo dute parrokian. Meza aurretik, 18:30 aldera, organo kontzertua egongo da parrokian bertan, Jose Santos de la Iglesia gasteiztarraren eskutik. Abenduaren 23an, domekan, Juan Carlos Irizar piano jotzaileak emanaldia egingo du Santa Ana antzokian. Azkenik, abenduaren 29an, zapatuan, Kepa Junkeraren kontzertua egongo da Zubikoa kiroldegian. Ulmaren historiaren gainean argazki erakusketa ere antolatu dute; hilaren 26tik 31ra arte egongo da ikusgai erakusketa, San Migel parrokiako klaustroan.

Ekitaldi horietara guztietara joan ahal izateko, gonbidapena edukitzea beharrezkoa da. Herritarrendako, Oñatiko Turismo Bulegoan daude eskuragarri gonbidapenok; langileendako, berriz, lantegiko Pertsonal bulegoetan.



ARTXIBOA

Aurten, uztailean bertan, inauguratu dute Zubillagako pabilioi berria.

**ANTZUOLA**

# Jolasen erakusketa egongo da asteburuan ume eta gurasoendako

AINTZANE IRIZAR

Gainean ditugu Gabonak. Opariak eta, batez ere, jostailuak izaten dira Gabonetako protagonista nagusietakoak. Horregatik egingo dute Antzuolan jolasen erakusketa orain. Gaur, egubakoitza, eskolako umeendako egongo da zabalik; bihar, berriz, eguerdiko 12:30etik 14:00etara eta arratsaldeko 17:30etik 20:30era.

Betiko jolasen erakusketa izango da, ez jostailuena. Kulki elkarteak egingo du. Elkarte horretako kideek azaldu digutenez, "jostailuak egiten erakutsiko dugu oraingo asteburuan Antzuolan; eta jostailuak egitea bera jolasa dela ere erakutsiko diegu ume eta nagusiei".

Hamar txokotan egongo da banatuta erakusketa. Kulkiko kideen esanetan, "ume eta gurasoendako dago zabalik erakusketa, baina guk, batez ere, gurasoengana heldu gura dugu. Izan ere, oso garrantzitsua da gurasoek umeekin jolas egitea, euren arteko harremana sendotzeko, batik bat".

**ELGETA** ESPALOIA KAFE ANTZOKIA

# Azkenean aurrera egingo du Espaloia Kafe Antzokiak

*Proiektua otsailerako egina egongo da, eta milioi eta erdiko aurrekontua izango du*

OXEL EROSTARBE

**Martitzenean egindako Kultura batzordean onartu zuten Toledo Taldeari Espaloia Kafe Antzokiaren proiektua esleitzea.**

Kafe Antzokiaren proiektua egiteak milioi eta erdiko aurrekontua izango du. Urtarril erdialderako proiektu hori Udalean egotea espero dute, dagoeneko Toledo Taldeko arkitekoak lanean hasiak dira-eta.

Kafe Antzokiaren proiektua egiterako orduan, Goibeko Kultura Elkarteak duela bi urte proposatutakoa hartuko da aintzakotzat. Hala ere, interesa daukaten beste taldeek ere aukera izango dute proiektuaren inguruan iritzia emateko.

Izan ere, martitzeneko Kultura batzordean, arkitektoek proiektua egiten diharduten bitartean, horren inguruan sortuko diren kezkak argitzen joateko batzarrak egitea erabaki zuten. Seguruenik datorren astean bertan egingo da aurreneko batzarra.

Proiektua aurrera eramaten bada, Goibeko Kultura Elkarteak kudeatuko luke. Atzo bertan, batzar orokorra egin zuten Goibeko elkartekoek, proiektuarekin aurrera zelan jarraitu erabakitzeko.

#### GASA KENDUKO DUTE HERRI GUZTIAN

Datorren eguenean, hilak 20, gaueko 22:00etan gasa kenduko dute herri guztian.

Horrela erabaki du Repsol etxeak, herriko sarean GAS-instalazioaren urteko proba egingo dute eta.

Gaueko 22:00etan kenduko dute gasa eta hurrengo egunean goizaldeko 06:00ak arte ez dugu etxeetan gasik izango.

Biharamunean gasa etxera heltzen ez bada, etxeko sarreran gasak izaten duen erreguladorea berrarmatu egin behar dela adierazi digute Udaleko eta Repsoleko arduradunek.

**ARETXABALETA** BAKE KONFERENTZIA

# Elkarrik Bake Konferentziaren garapen fasearen aurkezpen hitzaldia egingo du

AMAGOIA LASAGABASTER

Elkarrik urte hasieran jarri zuen abian elkarrizketaren eta akordioaren aldeko gizarte mugimenduan oinarritutako proiektua. Bake Konferentzia izenpean, herriz herri ibili ziren ekimena aurkezten. Orain, berriz, Elkarrikoak proiektu horren garapen fasea azaltzera etorriko dira herrira.

Datorren eguaztenean egingo dute hitzaldia, Murrukixoko egoitzan, 19:30ean. Besteak beste, aurkezpenean, herritarrei ekimen horretan parte hartzeko bideak zeintzuk izango diren azalduko diete.

**HARRERA ONA HERRIAN**

Elkarrik 50 bat bazkide ditu herrian. Baina Bake Konferentziari atxikimendua erakutsi diotenak askoz gehiago izan ziren. Otsaileko kanpainan 218 sinadura batu zituzten herrian Bake Konferentziaren alde.




ARTXIBOA

**Otsailean aurkeztu zuen Juanjo Perezek Elkarriren izenean bake konferentzia herrian.**

**ARRASATE** GABONAK

# Jaiotza berezia izango da aurten Santa Barbara parkean

*Datorren astean ipiniko dute, eta urtarrilaren 8a arte izango da*

UBANE MADERA

**Aurtengo Gabonetan, jaiotza berezia izango da Mondragoen. Santa Barbara parkean, 40 bat irudidun jaiotza ipiniko dute datorren astean.**

Denetik izango du: jaiotza bera bere asto eta idiarekin, ardiak, artzainak, ostatu bat, itsasontzitxo bat eta Olentzero eta Erregeak, adibidez. Gutxi gorabehera, metro bateko altuerakoak izango dira irudiak eta dena material bereziarekin eginda, eguraldiaren gorabeherak jasateko. Astore arduratuko da jantziak egiteaz.

Herritar askok parte hartu dute. Ideia eta antolaketa San Andres parrokiako batzordearenak izan dira. Orain dela urtebete hasi ziren lanean,bereziki, dirua batzen, jaiotza egiteak 750.000 pezeta inguru balio du-eta. Jesus Murgiondo batzordeko bozeramaileak adierazi digunez, "dirua lortzeko etxez etxe ere ibili izan gara, baina esan beharra dago jendea oso ondo portatu dela. Merkatari, tabernari eta partikular askok eman digute dirulaguntza. Caixa, adibidez, oso eskuzabala izan da". Edozelan ere, gogorarazi du jaiotzan bertan itsasontzitxo bat egongo dela, jendearen laguntzak batzeko.



UBANE MADERA

**Oraingo astean, jaiotzarako irudi gehiago heldu zaizkio San Andres parrokiari.**

**MARTITZENEAN IPINIKO DUTE**

Guztia aurrez ikusitako moduan joanez gero, datorren martitzenean (hilak 18) inauguratuko dute jaiotza. Eta urtarrilaren 8a arte izango da. Askok Donostiako Gipuzkoa plazan egoten denaren antza hartuko diozue. Eta halaxe da, jaiotza hura egiten dutenen laguntza izan dute-eta mondragoetarrek: Gipuzkoako Elkarte Belenistarena, alegia.

Bestalde, antolatzaileek eskatu gura diete jaiotzaren bisitariei, arren, zain dezatela.

**LEINTZ GATZAGA**

## Jaiotza jarriko du zapatuan Guraso Elkarteak Markole plazan

MIRARI ALTUBE

Gabonak gainean ditugu eta Leintz Gatzagan ere Gabon ukitua eman gura diete herriko kale eta txokoei. Hori dela eta, Gatzagako Guraso Elkarteak, Gurel-ek, jaiotza jarriko du zapatuan Markole plazan. Arratsaldeko 16:30ak inguruan batuko dira guraso eta umeak jaiotza prestatzeko. Horrez gain, Olentzeroak ere han eta hemen jarri gura dituzte, besteak beste, jaiotza dagoen plazan bertan eta San Milixanetan jarri zen irameta igotzen. Herritarrei ere balkoi eta atarteetan Olentzeroak jartzeko deialdia egin diete. Alkatearen etxean, esaterako, jarrita dago dagoeneko, nahiz eta oraingo asteko haizeak desitxuratuta utzi.

Guraso Elkartean, bestalde, batzordekide aldaketa egin dute oraingo astean. Orain arte presidentea izan den Periko Orobengoaren ordez, Jaione Vitoria izendatu dute, eta Juli Zubillaga bokalaren ordez, Bixen Azkoaga sartu da. Batzordea bi urterako izendatzen da.

**ARAMAIO** ABENDUALDIA

# Abendualdiaren barruan, kantatutako meza domekan

*Organista, sopranoa eta Gasteizko kantariak*

UBANE MADERA

**Parrokiak Abendualdiari ekingo dio bihar, zapatua. Penitentzia ospakizunekin hasiko dira. Domekan, berriz, kantatutako meza izango da.**

Penitentzia ospakizunak Ibarran bertan eta herriko auzoetan izango dira. Bihar, Azkoagan, Barajuenen eta Etxaguenen egingo dira. Martitzenean, Untzillan eta Arexolan, eta eguaztenean, Ibarran.

**ORGANO JOTZAILEA ETA SOPRANOA**

Horrez gain, domekan, kantatutako meza izango da, 12:00etan. Gasteiztik etorritako abeslari talde bat izango da eta Floren Unzueta aramaioarrak organoarekin lagunduko die. Era berean, Esther Mendialdua aramaioar sopranoak abesti batzuk kantatuko ditu.

**ESKORIATZA** UDALETXE BERRIA

# Hil bukaeran hasi gura dituzte Udaletxea berritzeko lanak

*Ez dute erabaki zeinek egingo dituen lanak*

MIRARI ALTUBE

**Goitik behera berrituko dute Eskoriatzako Udaletxea, eta lanak hil bukaeran hasi gura dituzte. Baina oraindik ez dute erabaki zeinek egingo dituen.**

Eskoriatzako Udalak irailean onartu zuen Udaletxea berritzeko proiektua, eta abendu bukaeran berritze lanekin hasteko asmoa du. Momentuz ez da erabaki zeinek egingo dituen berritze lanok, baina datorren astean onartzea gurako luke udalbatzak, lanak lehenbailehen has daitezen.

**BEHIN-BEHINEKO UDALETXEA**

Jose Arana kaleko 13. zenbakian jarriko dute behin-behineko Udaletxea, lanek iraun bitartean. Han egongo dira bai Udaleko zerbitzuak, baita bilkura aretoa ere.

OHOLAK + FINKATZEAK + BOTAK
%20ko
DESKONTUA
ESKIA SNOWA
KIROLAK ZUBIAURRE
X-TREME
Florida, 2 • GASTEIZ
Florida, 2 • GASTEIZ

COMERCIAL BRUNET
MOTOZERRA ESKAINTZA BEREZIA!
Motozerra
zaharra ekarrita,
37.398 pta.-raino
emango dizkizugu


Ozaeta 11-13 behea • BERGARA • Tel.: 943 76 31 52

# Zabalik



JABIER ARANTZETA

## Gabonak

**Artikulua idatzi behar, eta zer jarri artikuluan? Durangoko azoka arrakastatsua izan dela eta neu ere pozik nagoela liburu eta disko piloa saldu delako? Datorren domekan euskaldun pila ederra izango dela Donostian eta bertsolarien txapelketa arrakasta handia izango dela? Hurrengo domekan beste euskaldun pila izugarri bat bilduko dela berriro Donostian pilota partidu bat ikusteko eta bertaratuko diren euskaldun gehienak nafarrak izango direla?**

**Bada ez, ez bata, ez bestea eta ez bestea, Gabonen gainean idatziko dut; izan ere horiek ere gainean dauzkagu eta ematen dute zer pentsa.**

**Hasteko, erregaluak erosi behar. Ez da zimurkeria, ez pentsatu, baina urtero-urtero diruok zertan gastatu pentsatzen ibili beharra ez da zeregin erraza. Konponbiderik errazena asko pentsatu barik barruko arropa eta kolonia erostea da, baina hori ere ez da itxura.**

**Jarraitzeko, gure gorputz gaixoei emango diegun tratua. Behin mahai inguruan bildutakoan, han dagoena jan egin behar, nahiz eta larregi izan eta jakin-jakinean egon gure kalterako dela. Kasu honetan ere badago konponbiderik, baina ia inork ezagutzen duen inor, mahaia jarriko duena mahai hori hainbeste ez betetzeko konbentzituko duenik.**

**Eta bukatzeko, familia osoa biltzearena. Hain pozgarri izan beharko litzatekeen hori, askotxotan zoritxarrerako izaten da, horrelakoetan gelditzen delako garbi, batagatik eta besteagatik batzuk falta direla.**

**Baina Gabonetan desio onak ere izaten dira, horrela bada, ia denok barruko arropa dotoreak jasotzen dituzuen, asko jateak kalte gutxi egiten dizuen, falta direnengatiko tristezia erraz gainditzen duzuen, pilota partida dotorea den, eta izugarrizko jendetzaren aurrean lehenengo bertsolari emakume txapelduna daukagun.**

# Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 72
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: iritzia@goiena.com

## Gabonetan, ze jolas erosi

Jolasa, ekintza atsegina izateaz gain, garrantzizkoa da haurren garapen fisiko, sozial eta afektiborako. Jolasak laguntzen dio haurrari bere burua ezagutzen, bere gorputza; irudimena lantzen; konpartitzen; sentimenduak adierazten. Jolasak laguntzen dio, baita ere, frustrazio txikiei aurre egiten; besteen nahiak eta beharrak kontuan hartzen; lagunak egiten... Beraz, ezin ukatu jolasaren garrantzia.

Gabonak ere, aurrean dauzkagu eta hasiak gara pentsatzen ze jostailu erosi aurten, zenbat, zelakoak... Batzuetan ez da batere erraza izaten aukera egokia egitea, edo ez gara oso gustura geratzen erositakoarekin, edo uste dugu gauza gehiegi erosi dugula, edo... Horregatik data hauetan ideia txiki batzuk gogoratzera gatozkizu:

**Telebistaren eragina**

Sasoi honetan, telebistaren publizitatea umeengana zuzentzen da, gehien bat. Erakargarri bihurtzen du saldu gura duen produktua; umea liluratuta geratzen da telebistak eskaintzen dizkion jostailuekin: bere argitasun, kolore, mugimendu eta abarrekin. Ez dugu nahastu behar lilura hori, umearen benetako nahi eta beharrekin. Ez ditzagun geure buruak engaina, publizitatearen helburua saltzea da, ez haurrei jostailu egokienak aurkeztea. Gainera, demostratuta dago umeak telebistako jostailua gurasoei eskatu arren, ez dela benetan gehien estimatzen duena eta erabiliko duena.

**Neskendako eta mutilendako jostailu ezberdinak?**

Gogoratu jolasek eta jostailuek ez dutela ez sexu, ez generorik. Jostailuei ezartzen dizkiegun ustezko propietateak "hau neskendako", "hau mutilendako"- gure buruan daude, gure ohitura eta heziketan. Edozein jostailuk balio du neskarendako edo mutilarendako. Jostailuek, berez, ez dugu uste gizonezkoen eta emakumezkoen rolak sortzen dituztenik, baina bai helduen artean bi generoei buruz dauden ikuspegiak indartzen. Hobe da jolasaren bidez ere, neska eta mutilei eredu eta posibilitate anitz eta zabalak eskaintzea, bakoitzak era askean bere ahalmenak, trebetasunak, sentimenduak garatu eta adierazi ditzan.

**Eta, gerra- jostailuei buruz, zer?**

Haurra ez da bortitza izango "Rambo" batekin jolastegatik, baina hobe da horrelako gizon-ereduak alboratzea, nolabait ere errealitatea ulertzeko era jakin bat indartzen dutelako, gizartea gaizto/zuzen bereizketa sinplera mugatuz eta gatazkak indarkeriaz konpontzen direla azpimarratuz. Beste adibide batera joanda, inor ez da anorexiko bihurtuko "Barbie" argaltxo batekin jolastegatik, baina horrelako panpinarekin batera edertasunaren eredu zehatz eta itxi bat ari gara ematen gure umeei.

**Zer eduki kontuan jostailu bat aukeratzerakoan?**

Honako hauek hartu beharko genituzke kontuan, jostailu bat aukeratzerako orduan:

- Jostailua baino, jolasa da garrantzitsuagoa: guraso edo senide bezala, parte har ezazu umearen jolasetan, zure presentzia soilak ere umea animatu eta motibatzen du.
- Hobe da jostailu gutxi eta denetarikoak, asko eta pentsatu barik erositakoak baino.
- Jostailu guztiz automatizatuek bere ahalmenak erabiltzeko aukera txikiagoa ematen diote haurrari.
- Talde jolasa, konpartitzea, bultzatzen dituena sozializaziorako joko ona izaten da.
- Adin batetik aurrera, batez ere, joko arautuek besteen ikuspuntua errespetatzen laguntzen dute.
- Jostailua sinplea izan arren, sormena eta irudimena garatzeko egokia izan daiteke.
- Estetikoa eta erakargarria izateak ez du esan gura garestia izan behar duenik.
- Garrantzizkoa da ze materialekin dagoen eginda: toxikoa den, oso hauskorra, iraupen gutxikoa, erabilera zaila duena...

PILAR ETXANIZ KORTABARRIA
(DEBAGOIENEKO ESKOLA PUBLIKOA)
Debagoiena

## Txikizioa gelditu!

Abenduaren 15ean, Arrasaten, arratsaldeko 17:00etan, AHT Gelditu! Elkarlanak antolatu duen manifestazioan parte hartzeko deia egiten dugu AHTren Aurkako Asanbladatik, AHT Gelditu! Elkarlaneko partaide bezala.

Eusko Jaurlaritzako kideen aldetik nahasmena besterik somatzen ez den garai hauetan, alde batetik EBk edo Madrazok diote proiektua berraztertuko dutela jasangarri (??) egin arte, eta bestetik, Amannek dio, eta sinisten dugu, Eusko Jaurlaritzaren aldetik ez dela inongo aldaketarik. Mobilizazioa beharrezkotzat jotzen dugu aldrebeskeria hau gelditzeko era eraginkorrena delakoan. AHT eginez gero, ezberdintasun sozial eta ekonomiko handiagoa, dagoeneko oker dagoen ingurumenaren txikizioa eta aurrerapauso bat politika neoliberal eta desarrollistan emango zen.

Bestalde, nahiz eta, oro har, Euskal Herrian eta "gizarte garatuan" gertatzen den fenomeno bat izan, Debagoienean ezin dugu AHTren proiektuaz hitz egin, egiten ari diren proiektuak gogora ekarri barik: Eibar-Gasteiz autopista, Durango-Beasain autobia, Olandixoko tunela, Bergara eta Arrasate arteko errepidearen hobetzea… eta hauei loturiko harrobiak eta hondakindegiak. Arrasateko Egitamu Orokorra, zeinek "lur erabilgarri" guztien okupazioa dakarren, poligono industriala, desagertzear dagoen nekazaritzaren lur onenen zarrasteltzea…

Honek guztiak herritarren erantzun bat eskatzen du, kasu honetan biharko, 15eko, manifarekin etorriko dena. AHT gehiago, karretera gehiago, urtegi gehiago, harrobi gehiago, kotxe gehiago, kontsumismo gehiago, erokeria… Noiz arte? Txikizioa gelditu! AHTrik ez!

AHT-REN AURKAKO ASANBLADA
Debagoiena

# Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



# Eztabaida

Telebista kate pribatuak agertu zirenean, orain dela 10 bat urte pasatxo, telebistak kalitatez asko irabaziko zuela, askatasun handiagoa izango zela, eta abar eta abar esaten zuten. Konpetentzia handiagoa izango zela, eta hori telebista publikoendako onuragarria izango zela. Denborak erakutsi du ikus-entzuleria ororengana zuzendutako telebista guztiak berdin samarrak direla. Publiko edo pribatu izan, batek hau egiten badu, besteak ere hori egingo du. Eskaintza homogeneizatu egin da.

## Telebista publiko eta pribatuak ezberdinak izan beharko lirateke?

### *Eztabaida interesatua*



EDORTA ARANA
Kazetaria eta EHUko irakaslea

Duela hamar urte, telebistagintza pribatuarena adierazpen askatasunaren lorpen bat zela eta medioari aniztasuna ekarriko ziola aldarrikatzen zuten berberak daude gaurko "zerbitzu publikoaren" inguruko eztabaidan.

Oraingo honetan, TVEren diruzuloa, aldi berean finantzatze publiko eta publizitarioa erabiltzea, programazio komertzialegia eta audientzia-lehiaketan buru belarri sartuta egotea salatzen dute. Eta kritikarako arrazoiak ez zaizkie falta. Esandakoaz gain, aginte partidistekiko mendekotasuna, homogeneotasun ideologikoa albistegi eta eztabaida saioetan, komertzialtasuna eta espektakularizazioa programazioan, audientzia helburu hutsa izatea eta epe erdirako edo luzerako helburuak ahaztea laburreko etekin komertzialen onerako, beste batzuen artean.

Beraz, telebistagintza publikoaren eta pribatuaren inguruan hausnarketa serioa egiteko gaiak badaude. Daukan garrantzi soziala jendearengana iristeko informazioa eta balore transmisioan, hezkuntza sistemarekin dituen loturak eta denbora librearen erabileran lortzen duen lekua kontuan hartuta, errekuperatu beharra dago telebista kanal desberdinen kontrol soziala. Hau ere garrantzitsuegia da politiko, negoziante eta diru-etorrera arinzaleak diren profesionalen esku uzteko.

"Interes publikoa" irrati-telebistagintzaren funtsezko elementu bat baldin bada, kanal pribatuetan zein publikoetan aplikatu beharko dira oinarrizko arau berberak. Eta horien artean, noski, programazioaren aniztasuna, jendearen parte-hartzerako bideak zabalik edukitzea, iritzi guztietara zabalik egotea, izaera ezberdin guztien aurreko errespetua eta pluraltasun linguistiko eta kulturala islatzea. Eztabaida-gai hauetan sartu barik, TVEren bigarren kanala pribatizatu beharraz arituko dira edo iragarkiak jartzen dituelako ETB2rena konpetentzia desleiala dela esanez. Betikoa, telebistagintza publikoaren aurka egiten dute, komertzialarendako eskuak libre gura dituztelako.

**"Telebista publikoaren aurka egiten dute, pribatuarendako eskuak libre gura dituztelako"**

### *Ezer ez da berdin*



MANU CASTILLA
EITBko Kabinete Zuzendaria

Barrutik zein kanpotik begiratu eta telebista bat bestearekin konparatuz gero, bien artean inolako parekotasunik ez dagoela ikusiko dugu. Pribatuak mundu bat dira eta publikoak beste bat. Telebista pribatu eta publiko baten antolamendua, esaterako, guztiz da desberdina. Horrez gain, txikiek ez dute zer ikustekorik handiekin, lokalak eta nazioartekoak guztiz desberdinak dira, generalistak eta tematikoak, digitalak eta analogikoak... Desberdintasuna baino ez dago telebistaren munduan.

Baina, hori horrela izanik, zergatik entzuten dugu behin eta berriz "telebista guztiak berdinak dira" leloa? Nire ustez, hau ulertzeko datu bat kontuan izan behar dugu: euskaldun bakoitzak 210 minutu, hau da, hiru ordu eta erdi, ematen ditu egunero telebistaren aurrean. Hau batez bestekoa da, noski, eta beraz, batzuek lau eta bost ordu baino gehiago ematen dute, eta besteek, berriz, bat edo bi bakarrik. Eta bi talde hauen artean bai ez dagoela parekotasunik. Aurreneko taldea telebista kontsumitzaile sutsua da, telebista ikusi bai, baina ez du telebistari buruz askorik hitz egiten, gehienera ere programa edo aurkezle bati buruz ariko zaizu. Telebistari buruz idazteko ohiturarik ez du. Bigarren taldean telebista kontsumitzaile apalenak sartuko ditugu: programa gutxiago ikusten ditu, baina letra handiz idatzitako Telebista (programazioa, antolaketa, ideologia...) gehiago interesatzen zaio. Jeneralean, iritzia bigarren talde honetatik datorkigu, eta telebistaz idazten dutenak atal honetan kokatu behar ditugu.

Egoera, beraz, honako hau da: batzuek telebista isilik ikusten dute, eta besteek gutxi ikusten dutenari buruz asko jardun ohi dute. Lehendabizikoendako, ikusle sutsuendako, alegia, programen artean ez dago kolorerik, informatibo nahiz entretenimendurako izan, ezer ez da berdin! Eta beraien esku dago agintea, eta nola saiatu etxetik etengabe aukerak egiten. Bigarrenek, aldiz, telebista ikusi beharrean, telebistaz mintzo dira, eta nola! Gutxi ezagutzen dutenari buruz jarduten dute, guztia berdina dela esatearekin konformatuz. Lastima, baina telebistan ezer ez da berdin!

**"Desberdintasunik baino ez dago telebistaren munduan: lokalak eta nazioartekoak..."**

**DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA** — Iritzia emateko: iritzia@goiena.com

*Gustuko dituzu Gabonak eta horrek dakarren guztia?*

# Gora eta Behera

**GRAFFITIAK**

Graffitia beste arte mota bat da. Aerosolaren artistak dira graffiti egileak. Graffitiak izan dira, badira eta izango dira. Onartu behar ditugu. Administrazioak graffitiak non eta nola egin arautzearen aurka nago. Gizartearen ardura izan beharko litzateke kontu honi irtenbidea aurkitzea.

**GRAFFITIEN KONTRAKOAK**

Graffitien aurka daudenak eta pintada soil moduan ulertzen dituztenak; graffiteroak ganberro huts bezala hartzen dituztenak; graffitiak egiten dituztenek kaleko hormak zikindu eta zatartu baino ez dutela egiten diotenak eta graffitiak egiten dituztenak zigortu behar direla diotenak.



GERMAN BEREZIBAR
Debagoieneko Udalen Elkarteko gerentea

# Koplak

### *Txapelketa Nagusia*

Udara azken honetarako
iragarrita zegoen,
nola irtengo zen jakin nahian
ni itxaroan nengoen.

Lau urtean behin antolatzen da
Txapelketa nagusia,
orain arteko sasoian behintzat
ez da izan itsusia.

Gai jartzaile ta bertsolariak
epai mahaikoak tartean,
festa politak egin dituzte
gaur arte denen artean.

Bertsolariak ederki asko
bete dute bere lana,
penagarria da bidean batzuk
gelditu behar izana.

Guztiendako berdintasunik
nola ez dagoen hemen,
bertsolarien sufrimendua
bertsozaleen gozamen.

Belodromoko finala dago
datorren iganderako,
talde bikaina sailkatu da ta
ez da gaizki aterako.

JESUS KORTABARRIA "KAXETA"

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Goio Arana (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga, Natali Martinez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martin, Imanol Elortza
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate, Gari Bragado
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Julen Aranguren

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko abenduaren 14a

# German Kortabarria

ELA SINDIKATUKO KOMUNIKAZIO ARDURADUNA

## “ELA beti izan da euskal sindikatua, eta euskal sindikatu izate horrek eman dizkio berezitasuna eta nortasuna 90 urte hauetan”



ELA sindikatuak 90 urte bete berri ditu. Bilboko Euskalduna jauregian egindako ekitaldi jendetsuan ospatu zuen urtebetetzea. German Kortabarria oñatiarra (52 urte) da ELAko komunikazio arduraduna. Lanbidez abokatua, 1975ean zabaldu zuen Donostian ELAren lehen bulegoa. Getxon bizi da.

ENEKO AZKARATE

**ELAk 90 urte bete berri ditu. Zorionak!**

Eskerrik asko. Urtebetetzeak aukera eman digu atzera begiratu eta hausnarketa egiteko. Pentsa genezake gaur egungo sindikatuak eta 1911. urtean sortutako hark zerikusi txikia dutela. Gauza askotan, hala da: hainbat erreferente ideologiko nahiko ezberdinak dira. Baina, bestalde, ikus dezakegu nahiko antzerakoak ere badirela. Badira 90 urte hauetan aldatu ez diren gauzak ere. ELA langileen interesak babestuko eta defendituko erakunde izateko jaio zen eta, aldaketak aldaketa, gaur egun ere, horixe da ELA. Horrez gain, ELA beti izan da euskal sindikatua. Horri ere eutsi dio 90 urteotan. Eta euskal sindikatu izate horrek ematen dizkio berezitasuna eta nortasuna ELAri. Noski, aldaketak asko izan dira. Gizartea ere asko aldatu da.

**Langileen eskubideak defenditzeko erakundea baino gehiago da ELA?**

Sindikatua ez da gestoria bat. Hortik abiatu behar gara. Bestalde, mugimendu abertzalea sortu eta indartzen zebilenean jaio zen ELA. Abertzaletasunak gaur egun ere badauka aldarrikapen izaera, baina joan den mende hasieran askoz ere nabariagoa zen izaera hori. Gaur egun, abertzaleak gobernuan daude. Orain dela 90 urte, berriz, mugimendu abertzalea galtzaileen mugimendua zen. Hau da, Karlistaldien porrotetatik eta Foruen ezabatzearen ondoren, formulazio berriekin, burua altxatzen hasia zen herri baten adierazlea zen mugimendu abertzalea. Gainera, indar politikoen eta langileen mugimenduen arteko harremana oso barneratuta zegoen. Ikusten zen, batetik, abertzaletasunak ere bere sindikatua behar zuela eta, bestetik, abertzale sentitzen zen langile asko ez zegoela gustura beste mugimendu politiko baten mendean zebiltzan sindikalismo sozialista edo anarkistaren barruan.

**Orain gutxiago, beharbada, baina Eusko Alderdi Jeltzalearekin lotu izan da ELA.**

Bere autonomia irabazteko ahaleginetan ibili da sindikatua. Abertzaletasuna ordezkatzen zuen Eusko Alderdi Jeltzalearekin ELAk izan dituen harremanak UGTk PSOErekin izan dituenak baino askoz ere askeagoak izan dira. Hala ere, bai, ELAren eta EAJren artean beti egon izan da harreman dialektiko bat, batzuetan beste batzuetan baino zailagoa. Esan behar da, bestalde, 1960ko hamarkada oso erabakigarria izan zela. Euskal Herria aldatu egin zen, ikuspegi guztietatik. Garbi geratu zen abertzale izateko beste modu batzuk bazirela, sozialismoaren edo marxismoaren erreferenteekin, esaterako… Aldaketa horiek guztiek eragina izan zuten ELAn ere. Erreferente berriak eta ikuspegi laikoa zituen belaunaldiak hartu zuen ELAren gidaritza. Horren haritik, Manu Robles Arangizek eta, oro har, ELAren zuzendaritza historikoak egindakoa nabarmendu gura izan dugu Euskalduna jauregian egindako ekitaldian. Zuzendaritza historiko hark beste modu bateko erreferente ideologikoak zituen, baina konturatu zen Euskal Herrian gauzak aldatzen zebiltzala eta kontserbadore jokatu beharrean, belaunaldi berriekin bat egiteko ahalmena izan zuen. Katea eten barik, baina berrituta azaldu zen ELA 60ko hamarkadatik aurrera. Esango nuke garai hartan langileek eskatzen zuten sindikatu ereduarekin asmatu genuela.

**ELA nagusi da Hego Euskal Herriko herrialde guztietan?**

Une honetan, 96.000 edo 97.000 inguru izango gara ELAra afiliatuta gaudenak, eta laster 100.000ra heltzea da gure helburua. Bestalde, ez ditut oso aintzakotzat hartzen afiliazioaren gainean beste sindikatu batzuek ematen dituzten datuak. Hala ere, ez ditut gezurtatuko. Ordezkaritzari begiratzen badiogu, ELA nagusi da Euskal Autonomia Erkidegoko hiru herrialdeetan. Gipuzkoan eta Bizkaian erabatekoa da, %40tik gorakoa, hain justu. Nagusitasun handia, hortaz. Nafarroan, %20an gaude. Kontuan hartzeko datua da, batez ere, erabateko bazterketa jasaten ari garela kontuan izanda. Nafarroan demokraziarik badago, demokrazia organikoa izango da, Francoren garaian ezagutu genuena modukoa. Demokrazia erregimenaren aldekoendako bakarrik. Sanzen gobernuak erregimenaren aldeko hartzen ez dituenak inolako eskubiderik gabekoak dira. Egoera hori oso lazgarria da, kontuan hartuta %20ko ordezkaritza daukagula. Euskal Autonomia Erkidegoan Ibarretxeren gobernuak planteatuko balu UGT edo CCOO baztertzea, izugarrizko eskandalua gertatuko litzateke. Bi sindikatu horiek Euskal Autonomia Erkidegoan duten ordezkaritza baino dezente handiagoa dauka ELAk Nafarroan. Kontuak atera. Hala ere, horiek guztiak kontuan izanda ere, sindikalismoa egin daitekeela erakutsi dugu.

**Iparraldean ere baditu afiliatuak ELAk?**

ELAk frankismo garaian izan zuen Iparraldean estruktura txiki bat, batez ere hegoaldetik alde egin behar izan zuen jendeak osatua. Gaur egun, gure afiliatu asko Iparraldean bizi badira ere, ELA formalki hegoaldean dago. Kontua da zein izan dai-

EAJ ETA ELA

**“Abertzaletasuna ordezkatzen zuen Eusko Alderdi Jeltzalearekin ELAk izan dituen harremanak UGTk PSOErekin izan dituenak baino askoz ere askeagoak izan dira”**

UPN ETA ELA

**“Sanzen gobernuak erregimenaren aldeko hartzen ez dituenak eskubiderik gabekoak dira. Hori oso lazgarria da, kontuan hartuta %20ko ordezkaritza daukagula Nafarroan”**

LAB-EN JARRERA

**“Esanguratsua izan da su-etena hautsi zenetik hona LAB zelan joan den makurtzen, eta diskurtsoa eta jarduera inposatutako egoerara moldatzen”**

ELA ETA ERTZAINTZA

**“Egia da hainbat ertzain afiliatuk ez zutela ulertu edo onartu ELAk LABekin batera egindako bidea, baina, hala eta guztiz ere, gaur egun ia hiru ertzainetik bat ELAn dago”**


KONTZEJUPETIK

tekeen bide egokiena Iparraldeko langileak euskal proiektu sindikal bat osa dezaten. Bere garaian, LABi gai horretaz hausnarketa komuna egitea eskaini genion eta, ahal izanez gero, proposamen bateratua adostea. LABek gurago izan du bere kasa jokatzea. Hankasartzea izan dela uste dut.

**Afiliatuen kuotei esker bizi da ELA?**

ELAren aurrekontuaren lautik hiru afiliatuen kuotetatik dator. Badakigu, gura izanez gero, sindikatu batek beste diru iturri oparo batzuk eskura ditzakeela, gauza jakina baita hainbat sindikaturen aurrekontuaren gehiena diru iturri “atipikoetatik” hornitzen dela, heziketa “txiringitoetatik”, adibidez. Horrek, ordea, sindikatua finantza-erakundeen menpeko bihurtzen du. Burujabetasun ekonomikoa da independentziaren giltza.

**Gaur egungo egoera politikoa dela-eta, ezinezkoa da Euskal Herrian sindikatu guztiek elkarrekin lan egitea?**

Ezberdintasun politikoak egon badaude, baina horiek bezain garrantzitsuak dira eredu sindikalari dagozkionak. Hori ikusi da aurtengo lan-hitzarmenen negoziazioan. CCOOk, LABek eta UGTk, gure ustez, errazegi eman dute amore. ELAk uste du azken urteotako enpresen irabazi itzelak negoziazio oldarkorra eroateko aukera ematen duela eta bide hori sakontzea espero du 2002. urtean. Horretarako, esaterako, onartu berri dugu gure erresistentzia kutxaren ordainketak asteko 21.506 pezeta eta, kasu berezitan, hileko 183.240 pezetara jasotzea.

**Zerk oztopatzen du ELAren eta LABen arteko lankidetza?**

Era askotako arrazoiak egon dira. Bat aipatzearren, sindikatuaren independentziari buruzko ikuspegi kontrajarriarena aipatuko dut. ELAk uste du sindikatuak bere klase ikuspegitik gauzak aztertzeko eta estrategiak erabakitzeko askatasun osoa behar duela. LABen kasuan, badirudi mugimendu zabalago baten parte izateak duela lehentasuna. Nire ustez, esanguratsua izan da, esate baterako, su-etena hautsi zenetik hona LAB zelan joan den makurtzen eta diskurtsoa eta jarduera inposatutako egoerara moldatzen.

**Zelan baloratzen duzu LABek Gamesan izan duen jokaera, hau da, enpresaren eskaintza onartu izana, ELA, UGT eta CCOO kontra agertu direnean?**

Gamesaren kasuan, beste hainbatetan moduan, ELAk langile finkoen eta aldi baterakoen arteko bereizkeriari aurre egin gura izan dio. Behin-behineko kontratuak dituzten langileak erabiliz, enpresek “txiklezko” plantillak lortzen dituzte, jakina, langile horien lanaren eta bizitza proiektuaren kaltetan. Langile finko askok eta hainbat sindikatuk hori normaltzat jotzen badute ere, onartezina dela uste dugu.

**ELA nagusi zen Ertzaintzan. Azken urteotan, berriz, ERNE da nagusi. ELAren eta LABen arteko lankidetzak eragin du nagusitasun hori galtzea?**

Egia da hainbat ertzain afiliatuk ez zutela ulertu edo onartu ELAk LABekin batera egindako bidea. Beste askok, ordea, bai. Horren adierazgarri garbiena da gaur egun ia hiru ertzainetik bat ELAn egotea.

**Lizarra-Garazi Akordioaren bultzatzaileetako bat izan zen ELA. Gaur egun, Lizarra-Garazi moduko beste akordio bat posible izango litzateke?**

Lizarra-Garazi une garrantzitsua izan zen eta orduko printzipioak edozein soluzio demokratikoren oinarri behar dute izan. Edozelan ere, nik uste dut gaur egun askok eta askok norberaren burua zuritzeko aipatzen dutela Lizarra-Garazi.

**ETAren jokaerak euskal abertzaletasunaren aukerak oztopatzen ditu?**

ETAren jarduerak abertzaletasunaren aukerak oztopatu eta etsaiarenak indartu egiten ditu. Hartu beharreko erabakiek ausardia eskatzen dute, ezbairik gabe, baina ezinbestekoak dira.

**German Kortabarria izan daiteke ELAko hurrengo idazkari nagusia?**

Hori ez da gertatuko Aloña Mendi ohorezko mailara igo aurretik.


EUSKALDUNON EGUNKARIA

## “Estatutuak ez die gure herriaren beharrei erantzuten”

**Estatutua hilda dagoela esan du ELAk behin baino gehiagotan. Hala uste duzu?**

Estatutuak gauza batzuk eman baditu ere —eta nik ez dut gutxiesten horien garrantzia—, beste asko ez ditu eman eta ez ditu emango ere, Estatuak horrela erabaki duelako. Gaur egun, Estatutuak ez die gure herriaren eskaerei erantzuten. Hortaz, gure herriak ezinbestekoak dituen baldintza demokratikoak jaso eta bermatuko dituen itun politikoa konkistatu behar dugu.

**Kontzertu Ekonomikoaren berriztapenerako negoziazioetan ari dira Gasteizko eta Madrilgo gobernuak. Zelan ikusten duzu negoziazio prozesua?**

Kontzertu Ekonomikoaren gaian, EAEko erakundeen jarrera da gehien kezkatzen gaituena. Gaia herriarendako hain funtsezkoa bada, herriaren inplikazioa askoz gehiago bilatu beharko lukete, eta hori ez da gertatzen. Badirudi palazioko kontuak direla, eta gehienoi oso informazio urria ematen zaigu. Funtsean, nik uste dut herritarrenganako mesfidantza handia dagoela eta partaidetzaren kultura bultzatu beharrean, hauteskundeetan botoa eman eta politikoek deitutako manifestazioetan desfilatzera mugatzen dela gure parte hartzea.

*Podiuma*

# Xabier Ubera |PILOTARIA|

**Xabier Ubera pilotari elgetarra (21 urte) denboraldi biribila egiten ari da. Haritz Laskuraine-kin bikotea osatuz, DV Txapelketako finalerako sailkatu da, finalerdian Sorrarain eta Zapiain gaindituta (22-11). Xabierrek eta Haritzek datorren zapatuan, hilaren 22an, jokatuko dute finala Agesta eta Argoteren aurka, Tolosako Beotibarren. Aurretik, kluben arteko finala izango dute bihar, zapatua, Bergarako Udal Pilotalekuan. Arratsaldeko 16:30ean hasiko da pilota jaialdia.**

**Joan zen urtean ere, DV Txapelketako finalera iritsi zinen. Oraingoan, txapela bai?**

Ikusi behar. Jokatu aurretik beti izaten da irabazteko esperantza. Hala ere, Agesta eta Argote ez dira arerio makalak. Oso erregularrak dira, pilota gutxi galtzen dituzten horietakoak, batez ere Agestak. Zaila izango da haiei irabaztea. Hala ere, Haritzek eta biok txapelketa ona egin dugu orain arte; ea Tolosako finalean partidu ona ateratzen zaigun. Irregular samar ere ibiltzen gara batzuetan, eta finalean ez dago ezer oparitzerik... Guretako lorpen handia izango litzateke txapela eskuratzea.

**Amateur mailako pilotari onenetakoak jokatu duzue DV Txapelketa.**

Argi dago amateurren txapelketarik onena dela hau, eta txapela lortzeak prestigio handia ematen die irabazleei, hori ez dago ukatzerik. Kanporaketa sistema jarraituta jokatzen denez, ez dago huts egiterik. Horrek, beharbada, jokoan ere badu eragina. Joko ikusgarria egitera ausartu beharrean, gehienok garaipena ziurtatzera kantxaratzen gara. Ikuskizunaren kaltetan joko alaia baztertu behar izaten da horrelakoetan.


Xabier Uberak bi final izango ditu datozen egunetan. OXEL EROSTARBE

**“Guretako lorpen handia izango litzateke DV Txapelketa irabaztea, amateur mailan prestigio handiko txapelketa delako”**

**“Hogeita bat urte dauzkat eta oraindik ez dut profesionaletan jokatzeko itxaropenik galdu. Momentuz, gustura nabil pilotan”**

**Zer-nolakoak izan dira orain arte jokatutako bi partiduak?**

Serie-buruak izanik, final-laurdenetan hasi ginen. 22-14 irabazi genien Amarika eta Atutxari Elgetan, eta nahiko sufritu genuen, markagailuan atzetik izan ginen-eta. Joan den eguaztenean, berriz, Arrasaten uste baino errazago irabazi genien Sorrarain eta Zapiaini, 22-11, hain zuzen. Gure aldeko markagailua izan genuen partiduan eta horrek konfiantza eman zigun. Datorren zapatuko finalean, Tolosan, gehiago sufritzea tokatuko zaigu, ziurrenik.

**Aurrez, kluben arteko finala jokatuko duzue zapatuan Bergaran.**

Bai, kluben arteko finalak jokatuko dira kadete, gazte eta senior mailan, eta Elgetako Ozkarbi taldea ordezkatuz, Haritz eta biok finalera iritsi gara. Haritz plazentziarra da, baina gure taldearekin dihardu azken bi urteotan. Finalera heltzeko, gure taldean lehen postuan sailkatu ginen lehenbizi, eta ondoren, final-laurdenak eta finalerdiak gainditu genituen. Sorarrainen eta Báezen aurka jokatuko dugu finala. Nire ustez, atzean erabakiko da zapatuko partidua. Báezi jokoa kargatzen ahaleginduko gara.

**Zure sasoirik onenean zaude?**

Emaitza onak lortu ditugu azkenaldian, baina eskuetan arazoak dauzkat. Astelehenean, kailua kendu nuen eta nire asmoa da bi final hauetarako sasoi puntu ona hartzea.

**Azken bi urteetan maila bikaina azaldu duzu kantxan. Profesionaletara igarotzeko eskaintzarik izan duzu, Xabier?**

Hogeita bat urte dauzkat eta ez da adin txarra. Oraindik ere ez dut profesionaletan jokatzeko itxaropenik galdu. Gustura nabil pilotan jokatzen eta egunero entrenatzen. Ezin dizuet gehiagorik esan.

EDU MENDIBIL




## Santamas Krosa domekan Arrasaten

Arrasate Atletiko Taldeak antolatuta, Koadrilen Arteko Santamas Krosaren XXIV. ekitaldia jokatuko da domekan, Arrasaten. Debagoieneko koadrilei parte hartzeko deia egin diete antolatzaileek. Proba eguerdiko 12:30ean hasiko da, eta partaideek sei kilometroko ibilbidea izango dute. Izena ematea herriko plazan egin beharko da, 12:00etan. Aurretik, 11:00etatik 12:00etara, 7 eta 14 urte bitarteko gaztetxoei zuzendutako probak jokatuko dira.

ATZOKO TXAPELDUNAK

## Jose Ramon Madinabeitia Pilotaria


Madinabeitia trofeo bat jasotzen, 1963. urtean, Altsasun.

**Gipuzkoako txapelduna binaka eta banaka.**

**Hamabi urtez jokatu zuen profesionaletan.**

**Hogeita hemeretzi urterekin erretiratu zen.**

Pilotazale amorratua txikitatik, 15 bat urterekin irabazi zuen herri mailako lehen txapelketa, “Txurdo” Gabilondorekin bikotea osatuz. Teodoro Oregirekin batera ere makina bat bider jokatu zuen, Madinabeitia atzean. 1961. urtean, Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuten, finalean Rioja-Lujanbio bikoteari nagusituta (22-6), Donostiako Groseko pilotalekuan. Handik urtebetera, banakako txapela jantzi zuen Madinabeitiak: Anoetan 18-5 irabazi zion Txikito VI.ari. Madinabeitiak gogoratzen duenez, “oso ondo konpontzen ginen Oregi eta biok. Bikotekako txapelketatan maila handia egoten zen orduan eta hainbat txapela eskuratu genituen”. Hogeita zazpi urte zituela, profesionaletan aritzeko eskaintza egin zioten: “Orduan, enpresa bakarra zegoen, Empresas Unidas, eta, batez ere, Eibarren, Bergaran, Tolosan eta Errioxan ibiltzen ginen, jaialdiko hirugarren partiduan. Bergarako frontoia gainezka egoten zen eguaztenetan eta zapatuetan”. Bere jokoa definitzeko orduan, zera dio: “Kokapen ona nuen, baina kolpe handirik ez. *Egurra* falta...”.

Hamabi urtez jokatu zuen profesionaletan. 1981ean, omenaldia egin zioten Bergaran. Jaialdi hartako partidu nagusia Laduche-Tolosa eta Retegi-Barandiaran bikoteek jokatu zuten. Alustizaren jokoa gustatzen zaio: “Indartsua izan barik, pilotaria dela demostratu izan du beti”. Mutikoak entrenatzen ibilitakoa da eta orain, erretiratuta dagoela, pilotak egiten ditu zaletasun moduan: “Pilota goxoak dira. Gogorrak egitea gaitza da. Nekez lortzen da piloten zarata edo musika hori, baina Jose Mari Etxanizen laguntzarekin, banabil saiatzen”. /E. M.

***“Oregi eta biok oso ondo konpontzen ginen. Bikotekako txapelketetan maila handia zegoen, eta hainbat txapela eskuratu genituen amateurretan”***


Jose Ramon Madinabeitia • Bergara • 1938

# Urrezko gimnastak

## Ipuruan ari diren Debagoieneko gimnastak bikain Espainiako Txapelketan

**Ipurua taldean ari diren Ane Miren Fernández, Aintzane Narváez, Idurre García eta Leire Lasa Debagoieneko gimnastek emaitza bikainak lortu zituzten aste bukaeran Gasteizen jokatutako Espainiako Txapelketan.**

Ane Miren Fernández bergararrak eta Aintzane Narváez antzuolarrak urrezko domina eskuratu zuten senior mailako soka eta pilotako ariketetan. Eibarko Ipurua taldeko gimnastei 16,950 puntu eman zizkien epaimahaiak domekako finalean. Aintzane eta Ane Mirenekin batera, Miriam Merino, Ane Susaeta eta Ylenia López aritu ziren aste bukaeran Gasteizko Fernando Buesa pabilioian jokatutako Espainiako Txapelketan. Talde eibartarra Iruñeko Anaitasuna eta Zaragozano taldeen aurretik sailkatu zen.

Gazte mailako Ipurua taldeak, berriz, hirugarren postua lortu zuen taldekako sailkapenean, Madrilgo Chamartin eta Marbella taldeen atzetik. Ondorioz, Leire Lasa bergararrak eta Idurre García arrasatearrak brontzezko domina eskuratu zuten. Ipuruako gimnastek 14,950eko puntuazioa lortu zuten mazoekin egubakoitzean, eta zapatuan puntuazioa hobetu zuten (15,150 puntu). Jennifer Hernando, Jaione Tejedor eta Janire June Udaondo izan ziren Idurreren eta Aintzaneren taldekideak Gasteizen.



ANGEL GARCIA

Ipuruako senior taldeak urrezko domina eskuratu zuen soka eta pilotako ariketetan.

Gazte mailan 32 talde eta senioretan 12 talde izan ziren lehian.

EDU MENDIBIL

## Kirolabur

### TRIATLOIA/OÑATI

Duatloietan eta triatloietan parte hartzeko talde bat osatzekotan dabiltza Oñatin. Parte hartzeko interesa dutenek ondoko telefono zenbakietara dei dezakete: 943 78 17 70 (Iñaki), 943 78 03 77 (Josu), 943 78 09 43 (Unai) edo 943 71 63 75 (Kiroldegia).

### PILOTA/MURU

Iker Muruamendiaraz antzuolarrak 22-10 irabazi zion Medinari astelehenean Tolosako Beotibarren, bigarren mailako Lau t´erdiko Txapelketako finalerdietan. Lehenbiziko partiduan mexikarra nagusitu zenez, astelehenenean jokatuko dute azken partidua, finalera nor iristen den erabakitzeko.

### TXAPELKETAK/ARRASATE

Zapatuan, hilak 15, boulder eskalada txapelketa jokatuko da Arrasateko Uarkape pilotalekuan. Izena ematea 15:00etan egin beharko da. Bestalde, Eugenio Ayalaren oroimenez, koadrila arteko saskibaloi txapelketa jokatuko da Gabonetan Iturripen. Izena ematea (5.000 pezeta taldeko) abenduaren 20ra arte egongo da zabalik, Monte tabernan. Talde bakoitzak, gutxienez, zazpi jokalari (hiru federatu, gehienez) izan beharko ditu.

Loramendi kirolak
www.loramendikirolak.com
San Andres eta Garibain, ARRASATEn
INTERSPORT



SNOW
Tabla + fijazioak 29.995.-
Botak 12.995.-
Snow eskularruak 4.495.-
ESKI
HEAD tablak + fijazioak 34.995.-
Salomon botak 17.995.-
Goretex eskularruak 4.995.-
Eskiak konpontzen ditugu.
Lehen urteko mantenimemdua DOAN.


Opari
Zoriontsuak
EROSKi
2001

# Goienka2a

Egubakoitza / 2001eko abenduaren 14a

Kultura eta aisialdia

Abenduaren 14tik 21era


Bertso Txapelketa Nagusia 2001

# Nork jantziko du txapela?



## Bertsozale debagoiendarren iragarpena

Zortzi ibiliko dira haren atzetik. Zortzi bertsolarik egin dute amets berarekin, eta horietako bakoitzak, urduritasunari aurre eginaz, bere onena emango du, duda barik, abenduaren 16an jokatuko den Bertso Txapelketa Nagusiko finalean, hainbeste desiratutako txapel hori datozen lau urteotan jantzi ahal izateko. Andoni Egañak, oraingo txapeldunak, titulu horri eustea izango du helburu. Baina gainerako zazpi parte hartzaileek -Maialen Lujanbiok, Unai Iturriagak, Jon Maiak, Jesus Mari Irazuk, Sustrai Colinak, Aitor Mendiluzek eta Igor Elortzak- ahal duten zailtasun guztiak ipiniko dizkiote. Anoetako belodromoan Euskal Herri osoko bertsozaleak elkartuko dira, tartean debagoiendarrak ere, lehia hori ikusteko irrikaz.

Zortzi bertsolari bikainen arteko norgehiagoka ikusi ahal izango da, hortaz, datorren domekan. Zein gailenduko ote? GOIENKARIAn gure kiniela egin gura izan dugu. Horretarako, Debagoiengo bertsozale amorratuenen iritzia eskatu dugu. Ibarreko faboritoa zein den jakin gura baduzu, segi irakurtzen! /12

LEIRE KORTABARRIA

GOIO ARANA

BERTSOLARITZA/ BERTSO TXAPELKETA NAGUSIKO FINALA IZANGO DA DOMEKAN

# Ibarreko bertsozaleen kiniela

DEBAGOIENEKO BERTSOZALEEI IRITZIA GALDETU DIEGU: ZEINEK IRABAZIKO DU BERTSO TXAPELKETAKO FINALA?

**Abenduaren 16an, lau urtean behin egiten duten bezala, Bertsozale Elkarteak antolatutako Bertso Txapelketa Nagusiko finala jokatuko dute, Donostian. Debagoiendarrik ez dago finalisten artean, baina ibarrean zaletu asko dago, eta bakoitzak badu honezkero bere faboritoa.**

Domekan jakingo dugu, azkenean, hainbeste pronostiko eta kinielaren ondoren, zeinek jantziko duen Euskal Herriko bertsolarien txapela datozen lau urteotarako. Debagoieneko ordezkaririk ez dugu finalean ikusi ez entzungo: Andoni Egaña zarauztarra, Maialen Lujanbio hernaniarra, Unai Iturriaga eta Igor Elortza durangarrak, Jesus Mari Irazu larrauldarra, Jon Maia zumaiarra, Sustrai Colina urruñarra eta Aitor Mendiluze andoaindarra iritsi dira aurtengo txapelketaren azken saiora. Edozelan ere, hainbat bertsozale joango dira domekan Donostia aldera finalaz zuzen-zuzenean gozatzeko.

Ziurrenik, jarraitzaile bakoitzak izango du honezkero bere faborito edo bertsolari gogokoenen bat. GOIENKARIAk ibarreko zaleen aukeraren berri jaso izan gura du. Horrela bada, ibarreko hogei bertsolari eta jarraitzaileri eskatu diegu ausartzeko eta pronostiko bat egiteko. Hona hemen gai honetan jakintsu diren debagoiendarren pronostikoa!

**AURREIKUSPENAK**

Galdetutako gehienek Andoni Egañaren, 1993ko eta 1997ko txapeldunaren buruan ikusten dute 2001eko txapela ere: 20tik 12k uste dute hala. Batzuk horretaz oso ziur agertu dira; beste batzuk ezusteari tokia uzten diote; baina hori da boto gehien jaso dituen finalista. Galdetutako lauk oso zail ikusten dute aurreikuspen bat egitea; azkenik, hiruk Jesus Mari Irazuren alde egin dute, eta batek, Maialen Lujanbioren alde. Hori bai, guztiek azpimarratu dute aurtengo parte hartzaileen maila altua.

LEIRE KORTABARRIA



AITOR GONZALEZ DE KINTANA

**1997ko finalean bezainbat jende elkartzea espero dute antolatzaileek.**

## Finalistarik ez, baina…

**Bertsolari debagoiendarrek ez dute zorterik izan Txapelketa Nagusian, nahiz eta hiruk hartu duten parte: Ainhoa Agirreazaldegi bergararrak eta Joseba Lasagabaster eta Ander Lizarralde oñatiarrek. Agirreazaldegik azken laurdenetarako sailkatzea lortu zuen. Gainera, Txapelketa antolatzen hasi zenetik, txapela ez da debagoiendar baten buruan sekula izan.**

**Baina zaletasun aldetik, Debagoienak badu zeresana: AED elkarte arrasatearrak autobusa antolatu du finala ikusteko, eta 55 txartelak agortu ez ezik, badago joan gura izan eta autobusean leku barik geratu denik.**

## Zeinek jantziko du aurten txapela?



**AINHOA AGIRREAZALDEGI**
**Bergara**

Finalean, azken urteotan bertsolariek egin duten lanaren emaitza ikusiko dugu. Finalista guztiek maila polita dutela deritzot. Teknika aldetik, oso onak dira; irudimenari dagokionez, muga barikoak. Egaña Egaña da, baina besteek ere duten guztia emango dute, bertsozaleon gozamenerako. Nire aukera? Maialen Lujanbio.



**JON SARASUA**
**Aretxabaleta**

Zeinek irabaziko duen txapela? Buru berri batera joaten bada, deserosoa izan daiteke buru horrendako, hain gazte izanda, txapela eramatea. Erosoen, akaso, Andoni Egañaren buruan izango da. Baina irabazteak ez du esan gura pertsona hori onena denik, baizik eta egun horretan, zazpi lagunen iritziz, onena izan dela, besterik ez.



**JESUS ALBERDI**
**Bergara**

Saio guztiak ez ditut jarraitu, baina gehienak bai, irratiz entzun ditut. Nire ustez, oso maila altua izan da aurtengo txapelketan, eta bidean geratu direnen kalitatea ere nabarmendu gura dut. Irabazleari dagokionez, nik oraingo txapeldunarengan dut esperantza. Ondoan oso onak dauzka, bai, baina bera izango da txapeldun, nik uste.



**JOSE LUIS GORROTXATEGI**
**Osintxu**

Zein izango den txapeldun? Andoni Egaña, duda izpirik barik gainera! Besteak oso onak dira, eta edozein dago bigarren izateko moduan. Egun ona badu, Aitor Mendiluze izango da; bestela, Unai Iturriaga edo Jon Maiaren alde egingo nuke apustu. Bigarrenaren eta zortzigarrenaren artean ez dago puntu alde handirik.



**ANDRES GABILONDO**
**Arrasate**

Lehiaketetan, bi eta bi ez dira beti lau izaten, eta zaila da aurresaten. Abantaila, Egañari ikusten diot. Gainerakoak ere bertsolari onak dira, baina oker txikiak handi bezala hartuko dizkiete. Bigarren posturako, faboritoak Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio eta Igor Elortza dira, nahiz eta Elortzak ez duen bere benetako maila erakutsi.



**JOSEBA LASAGABASTER**
**Oñati**

Aurten ikusi da gazteak gogor datozela. Batez ere, Maialen Lujanbio nabarmenduko nuke, eta baita Unai Iturriaga ere. Sustrai Colina izan da ezuste handia; Amets Arzallus ateetan geratu da, baina kalitate handikoa da hura ere. Dena dela, horietatik Andoni Egañarengana ino beste salto bat dagoela deritzot.

**PATXI GOIKOLEA**
**Arrasate**

Egaña besteak baino aurreratxoago ikusten dut, aspalditik asentatua dago-eta. Gerta daiteke bateren batek ezustea ematea, baina ez dut uste. Bigarren postua edozeinek har dezake. Lujanbio, Irazu eta Maia dira nire gogokoenak, baina beste edozein ere izan daiteke. Inoiz baino maila altuagoa ikusi dut aurtengo txapelketan.

**JOKIN ITURRIOTZ**
**Arrasate**

Nik argi daukat: Andoni Egañak irabaziko du. Egañak oso egun txarra eta besteek oso ona izan beharko lukete txapela buruz aldatzeko. Bigarren lekuan, Jesus Mari Irazu larrauldarra ikusten dut; eta hirugarren sailkatua, nire ustez, Unai Iturriaga durangarra izan daiteke. Ikusi egin behar, baina, zer gertatzen den.

**JESUS KORTABARRIA**
**Antzuola**

Txapelketa oso ondo ikusi dut, bai antolakuntza aldetik, bai eta bertsolarien kalitate aldetik; bertsolari gazteekin harrituta geratu naiz, oso onak iruditu zaizkit guztiak. Horregatik, txapelduna zein izango den esatea oso gaitza iruditzen zait, eta epaimahaiak ere gaitz izango du. Egaña, Lujanbio eta Iturriagaren arteko lehia ikusten dut.

**MANEX AGIRRE**
**Aramaio**

Oso maila altua ikusi dut, lehenengo kanporaketatik finaleraino. Bertsolari berriak oso indartsu datoz. Igor Elortza, Aitor Mendiluze… horiek gustatu zaizkit batik bat. Txapeldun izateko faborito bakarra dagoela uste dut, Egaña; bigarren eta hirugarren postuengatik borrokatuko dira besteak. Bigarren, Maialen Lujanbio ikusten dut.

**KIKE DAPENA**
**Arrasate**

Ez dut larregi jarraitu aurtengo txapelketa, eta oso zaila iruditzen zait aurreikuspen bat egitea. Dena dela, parte hartzaileetako bat aukeratu beharko banu, Jesus Mari Irazu nabarmenduko nuke. Hala ere, aurreikuspen on bat egiteko, bakoitza zelan ibili den oso ondo jarraitu beharra dago, eta nik ez diet halako jarraipenik egin.

**DANIEL URIBEETXEBERRIA**
**Aretxabaleta**

Hainbat kanporaketatan izan naiz, eta gustatu zait ikusi dudana. Arkaitz Goikoetxea, Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio… oso ondo ibili dira. Finalerako, baina, uste dut Egaña guztien gainetik dagoela, eta ezusteren bat egon ezean, berak irabaziko duela. Bigarren, edozein gera daiteke: Maia, Lujanbio edo Irazu, horietariko bat, nire iritziz.

## Debagoiendarren faboritoa: 1. **Andoni Egaña** (%60), 2. **Jesus Mari Irazu** (%15)

AZOKA/ **DEBAGOIENEKO HAINBAT PRODUKTU EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKAN**

# Zer moduz Durango aldean?

EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKAN PARTE HARTU ZUTEN DEBAGOIENDAR BATZUEN INPRESIOAK

**Euskal Liburu eta Disko Azokaren 36. aldiak eman ditu eman beharrekoak. Lau egun izan ziren, eta, beste urte batez, Gerediaga elkarteak antolatutako karpa jendez gainezka izan zen lau egunean. Debagoieneko produktuak ikusi eta erostera ere jende dezente gerturatu zen.**

Taldeka zein bakarka, ibarreko idazle, kazetari, musikari, argitaratzaile eta euskaltzaleek euren salmenta eta erakusketa mahaia antolatu zuten. Publikoaren harrera ona eta jendeak erakutsitako ikusmina nabarmendu dute parte hartzaileek.

**NOR BERE HERRIKO LIBURUARI BEGIRA**

Badihardugu euskara elkartearen eta Deba ibarreko udalen postuan udalek argitara emandako liburuak zeuden, eta, batik bat, Debagoieneko bertako publikoa gerturatu zitzaien. Gehien, Loramendi elkartearen fruitu eta barazki kartel bat, eta Bergarako Udalak ateratako *Umeentzako kantu eta jolasak* eta lanbide zaharrei eskainitako bildumako *Zura eta harginak* liburuak saldu ziren. Japoniar batek *Eibarko hegaztiak* liburua erosi zuen, eta "eskerrik asko" esan zien saltzaileei euskara dotorean.

Arrakastatsu izan zen baita *Putz* aldizkaria ere: 300 bat ale saldu zituzten. Apokaliftin Kultura Elkartekoak "oso gustura" ibili dira: "Ikusi dugu *Putz* ez dela dagoeneko ezezaguna, jende askok duela bere berri", diote.

**IDAZLEAK ETA MUSIKARIAK**

Juan Martin Elexpuru bergararrak Literotura bilduma aurkeztu zuen, eta, batez ere, zortzigarren zenbakia, *Filosofia apaingelan*. Inpresio onarekin bueltatu da bergararra, bilduma "ondo" saldu da-eta, batik bat, bildumako azken bi zenbakiak.

*Oñati oinez* Urdin Elortza kazetariaren liburua ere nahiko ondo saldu zela komentatu du egileak berak, nahiz eta arazoren bat ere izan zuten: eguenean, liburuak iritsi barik zeuden oraindik -eta eskaera asko jaso zituzten orduan-, baina egubakoitzerako hantxe zeuden.

Juan Carlos Irizar piano jotzaile oñatiarrak mahai propioa izan zuen, orain arte eman dituen disko guztiekin. "Diskoak oso ondo saldu dira, batez ere, *Suhar* izenekoa. Azoka bera ere beti bezain polita izan da, eta jendea animu handiz ikusi dut; gehienek, ikusteaz gain, zer edo zer erosi dute", dio Irizarrek.

LEIRE KORTABARRIA




OXEL EROSTARBE

**Ibarreko hainbat elkarte eta udalek euren mahaia izan zuten Durangoko azokan.**

NIREAUKERA

## Isabel Guridi

**Eskoriatzako Museo Eskola**

**Oraintxe irakurtzen ari naizen liburu zoragarri bat gomendatu gura dut: Anthony de Melloren *Autoliberación Interior* delakoa. De Mello oso gizon berezia eta interesgarria izan zen, eta hark emandako ikastaro baten oinarrituta dago liburua. Haren jarraitzaileek idatzi zuten. Hemen, de Mellok hainbat gogoeta plazaratzen ditu. Pertsonak eta mundua zelakoak garen hobeto ulertzeko balio dute; horregatik, aplikazio praktikoa ere izan dezake, gure eguneroko bizitzako kezkak konpontzeko.**

**Gauzak oso garbi esaten zituen de Mellok: alegia, Elizak eta beste erakundeek gizakia kontrolatzea gura zutela salatzen zuen, besteak beste. Hori ere azaltzen da liburuan.**

**'AUTOLIBERACÍON INTERIOR'**
**Anthony de Mello**




L.K.

KALERATUBERRIAK/ **Iban Arantzabal**

**Liburua /** Nobela




**LAGUN IZOZTUA**

**Joseba Sarrionandia**
**Elkar**
431 orrialde

Poesia lantzen duen autore hau nobela batekin "etorri" da Durangora. Liburuirik salduena izan ei da. Ez da makala Sarriren curriculum-a: euskal filologian lizentziatua, aldizkari askotako kolaboratzailea, itzultzailea, euskaltzain urgazlea, Pott bandaren sortzaileetakoa, kartzelan egona 1980-1985 artean, eta geroztik iheslaria. Bere obra zabalean aipatzeko: *Gordelekuetan barrena, Kartzelako poemak, Narrazioak, Ni ez naiz hemengoa, Marginalia, Hitzen ondoeza*...

Gai, garai eta gertaleku ugariko eleberria dugu *Lagun Izoztua*, baina, iceberg baten antzera, askoz gehiago da iradokitzen diguna, irakurlearen gogoan izotz blokeen moduan noraezean geratuko den sentipen, ideia eta irudien mundu irudimenezko eta, hala ere, erreala. Irakurri beharra dagoen liburu horietako bat.

**Liburua /** Katalogoa




**DURANGOKO AZOKA 2001**

**Gerediaga elkartea**
**BBK**
869 orrialde

*Durango 2001* Euskal Herrian argitaratu diren liburu eta diskoak batzen dituen liburu mardula da. Gerediaga elkarteak eta Bilbao Bizkaia Kutxak atera dute 36. Euskal Liburu eta Disko Azokan jaso zitekeen liburua. Dena den, Durangoko Azokak duen webgunean ere bada eta han eskatu daiteke jaso ahal izateko.

Tarte honetan gogoratu gura genuke webgunean duten informazio piloa. Liburuak eta diskoak saltzeaz gain, argazkiak, bitxikeriak, katalogoa... denetik. *www.durangokoazoka.com*-en bezala, berriak, liburuak, aldizkariak, diskoak, zintak, entziklopediak, argazkiak... denetik aurkitu daiteke liburu honetan. CD formatuan ere argitaratu dute Gerediagakoek, eta beharbada erabilgarriagoa izango da bilaketak egiterakoan.

**Diskoa /** Istorio musikatua




**BAR PUERTO**

**Mikel Urdangarin eta Bingen Mendizabal**
**Gaztelupeko hotsak**
13 kanta

Mikel Urdangarin eta Bingen Mendizabalek musikatu dituzte disko honetako kantuak. Batzuk gogoratuko dira lehen Kirmen Uriberekin egiten zuen emanaldiaz, baina disko honetan ageri denak ez du zerikusi handirik. Ideia eta espirituari eutsi diote, eta Kirmen Uriberen gidoia errespetatu dute; hala ere, lan musikalagoa atera dute Durangoko Azokarako. Ezin ahaztu Bingen eta Mikelek ondoan dituzten musikariak: jazz mundutik etorritako Josu Izagirre eta Hasier Oleaga kasu, edo Hertzainaken ibili zen Josu Zabala. Alex eta Aitor Rubio gitarra jotzailea ere ondoan izaten ditu kontzertuetan. Taberna bereko zazpi bezero, Bar Puerto aldera hurbiltzeko gonbita eginez.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko abenduaren 14a

# Abenduak 14-21

**Leire Kortabarria** / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **erredakzioa@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## ANTZERKIA

### ARETXABALETA

► **MacRea** aktore komikoaren emanaldia egubakoitzean, abenduak 14, Gaztetxean, 22:00etan.

### ARRASATE

► **Hika taldearen** *Xagu* antzezlana zapatuan, abenduak 15, Uarkape pilotalekuan, 17:00etan.

### BERGARA

► **Bederen I taldea**ren *Laurel eta Hardy, zerura bidean* lana egubakoitzean, abenduak 14, Novedades aretoan, 22:30ean.

### ELORRIO

► **Juanlu Escudero**ren *Ríe… soy un calavera* antzerki lana egubakoitzean, abenduak 21, Ateneoan, 23:30ean.

## MUSIKA

### ARETXABALETA

► **Akordeoi Orkestraren** emanaldia zapatuan, abenduak 15, parrokian, 20:00etan.
► **Musika Eskolaren** kontzertuak izango dira egunero, abenduaren 17tik 21era, Leizarra musika eskolan, 18:00etan.

### ARRASATE

► **Cool Panic eta Satanic Bombs** taldeen kontzertua egubakoitzean, abenduak 14, gaztetxean, 22:30ean.
► **Txistulari bandaren emanaldia** domekan, abenduak 15, plazan, 12:30.
► **IX. Binakako Arin-arin eta Fandango** Txapelketa domekan, abenduak 15, herriko plazan, 18:30ean.
► ***Katiuska*** zartzuela zapatuan eta domekan, abenduak 15ean eta 16an, Amaia antzokian, 19:30ean.
► **Gabonetako kontzertua** eskainiko du Arrasate Musikalek egubakoitzean, abenduak 21, Amaia antzokian, 19:00etan.

### BERGARA

► **Musika Eskola**ren kontzertua egubakoitzean, abenduak 14, pilotalekuan, 19:00etan.
► **De Phazz** taldearen emanaldia zapatuan, abenduak 15, Jamen, 21:00.
► **Oñatiko Ganbara Abesbatza**ren emanaldia zapatuan, abenduak 15, Mariaren Lagundiko elizan, 19:30ean.
► **Green Mail taldea**ren emanaldia eta techno jaialdia egubakoitzean, abenduak 21, Jam aretoan, 23:00etan.

### ELGETA

► **Etsaiak eta Parasma** taldeen kontzertua egubakoitzean, abenduak 14, gaztetxean, 22:30ean.

### ELORRIO

► **Le Diablo Mariachi**ren emanaldia egubakoitzean, abenduak 14, Arriola aretoan, 22:30ean.
► **Moskuko Gazte Birtuosoak** ganbera-orkestraren emanaldia izango da egubakoitzean, abenduak 21, Arriola aretoan, 22:30ean.

## ERAKUSKETAK

### BERGARA

► **Herriko margolarien lanen** erakusketa izango da zabalik kultura etxean, urtarrilaren 1era arte.
► **Udo Frosch-en eskulturen eta Josu Iñiguez-en margoen** erakusketa eta salmenta izango da Artekaleko pizzerian.
► **Humboldt-en inguruko** erakusketa udaletxean, abenduaren 16ra arte.

### ESKORIATZA

► **Jostailu eta euskarazko material** erakusketa abenduaren 16ra arte kultura etxean, 18:00etatik 20:00etara.
► **Tomas Rubio Roy** eskoriatzarraren margoak abenduaren 21tik aurrera kultura etxean.

## IKASTAROAK

### ARETXABALETA

► **Nagusiendako euskal dantzak.** Egubakoitzero, musika eskolan, 19:15ean. Lehendik izena emanda zeudenez gain, kide berriak ere hartuko dituzte.
► **Eskulan ikastaroa.** Argibideetarako eta izena emateko, jo kultura etxera, edo deitu 943 71 10 27 telefono zenbakira.
► **Yogako hastapen ikastaroa, urtarrilaren 16tik martxoaren 28ra arte.** Astelehenetan eta eguaztenetan, 10:00etan eta 20:30ean. Sadhana yoga taldeak antolatuta. Argibideetarako, deitu 616 96 57 95 telefonora.

### ARRASATE

► **Afrikar perkusioa (dejembea) lantzeko ikastaroa** emango du Pedro Martínezek abenduaren 10ean hasita, Gazteluondoko aretoan, 18:00etatik 20:30era. Matrikula 3.500 pezeta kostako da, 21 euro. Argibideetarako edo izena emateko, deitu 943 79 80 25 telefonora (Iñaki).

### BERGARA

► **Windows eta Microsoft-en hastapen** ikastaroa antolatu du Udaleko Enplegu Sailak urtarriletik otsailera bitartean. Izenemate epea abenduaren 17tik 21era bitartean izango da, Udaleko Ongizateko Enplegu sailean. Talde bakoitzeko 12 lagun hartuko dituzte.
► **Zeramikaren hastapenei buruzko ikastaroa** izango da ekaina bitartean Zabalotegin. Argibideak: 943 76 19 17 edo 606 68 41 94.
► **Fandango eta Arin-arin ikastaroa** Moises Azpiazu dantza taldearen eskutik. Gazteendako eta helduendako eskolak. Argibideak: 943 76 15 40.
► **Pintura ikastaroa** antolatu du Beart elkarteak. Irakaslea Rikardo Azkargorta izango da. Argibideetarako, deitu 656 72 44 49 zenbakira.
► **Heziketarako psikomotrizitate praktikan bi urteko ikastaroa** eskaintzen du UNEDek, 2002ko urtarriletik aurrera. Argibideak: 943 76 90 33.

### ESKORIATZA

► **Gabonetako jakiak prestatzen ikasteko** tailerra izango da astelehenetik eguaztenera, abenduaren 17tik 19ra. Argibide gehiago kultura etxean eskura ditzakezue.

## LEHIAKETAK

### ARETXABALETA

► **Eskaparate lehiaketa** antolatu du Aretxabaletako Udaleko Kultura Sailak abenduaren 8tik 31ra bitartean.

### BERGARA

► **Bergara Ezagutzen** lehiaketa antolatu du Jardun elkarteak 14 eta 18 urte bitartekoendako. Izena emateko azken eguna abenduaren 19a izango da. Argibide gehiagorako, deitu 943 76 36 61 edo 943 76 08 19 telefono zenbakietara.

## DEIAK

### ARETXABALETA

► **Elkarri mugimenduak** bake konferentziaren garapen fasea aurkezteko eta parte hartzeko bideak azaltzeko hitzaldia egingo du eguaztenean, abenduak 19, Murrukixoren lokalean, 19:30ean.

### ARRASATE

► **Maritxu Kajoiren gaineko liburua** aurkeztuko dute egubakoitzean, abenduak 14, herriko plazan, 19:30.
► **XXIV. Santamas Herri Krosa** izango da domekan, abenduak 15, 11:00etatik aurrera.
► **Abiadura handiko trenaren aurkako nazio manifestazioa** zapatuan, abenduak 15, Seber Altube plazatik, 17:00etan. AHT Gelditu Elkarlana taldeak antolatu du.
► ***Arizmendiarrietaren pentsamentua MCCren orainean eta geroan*** hitzaldia egingo du Antonio Cancelok martitzenean, abenduak 18, Eskola Politeknikoan, 19:30ean.
► **Euskal Kulturaren Azoka** izango da zabalik abenduaren 20tik 24ra. Liburuak, diskoak, bideoak, CD-ROMak eta herriko artisautza eta arte taldeen lanak izango dira salgai.
► **Hutsik dauden etxebizitzen** inkesta egiten ari dira Udala eta Astiker enpresa, eta 700 etxebizitzatara joko dute galdetegi bat betetzera. Zentsuaren etxebizitza galdetegiaren antzekoa da. Udalaren inkesta hori betetzea egokitzen zaien familiei, mesedez, inkestatzaileak hartzea eskatzen diete.
► **Bidezko merkataritza azoka** antolatu du Harreman gobernuz kanpoko erakundeak abendurako, Seber Altube plazan.

### BERGARA

► **Barnealdeko hegaztiak ezagutzeko** Salburuara behaketa irteera antolatu du Pol-Pol mendizale taldeak abenduaren 15erako. Pol-Polen egoitza



► MUSIKA

### ‘KATIUSKA’ ZARTZUELA ARRASATEN

Urte askoko tradizioa berpiztu guran, *La Tabernera del Puerto* zartzuela taularatu zuen iaz Izaskun Murgia Lirika Elkarteak, emanaldi hartarako apropos sortutako elkarte arrasatearrak. Bi emanaldi egin zituzten, eta bietan ere publikoak bikain erantzun zuen. Orain, beste zartzuela batekin dator Izaskun Murgia elkartea: Pablo Sorozabalen *Katiuska* lana. 1917an, Errusiar Iraultzaren egunetan, dago girotua, eta gertaera historikoez gain, amodiozko istorio bat ere kontatzen digu. Aldez aurretiko salmentan txartel gehienak saldu dituzte; txarteldegian 50 bat sarrera eskainiko dituzte.

**Non:** Arrasateko Amaia antzokian. **Noiz:** Abenduaren 15ean eta 16an. **Ordua:** 19:30ean.



## LE DIABLO MARIACHI ELORRION

Egubakoitz gauean, lehenengo aldiz Euskal Herrian, Kataluniako Le Diablo Mariachi taldearen emanaldia izango da, Elorrion. 22:30etik aurrera, azken diskoa, *Aloha*, aurkeztuko du seikoteak. Kritikak euren soinu aberatsa eta letra zorrotzak goraipatu ditu.

ondoan elkartuko dira, 09:00etan. Argibideetarako: 943 76 48 51.

► ***Kantatu eta kontatu*** hitzaldia egingo du Juan Kruz Igerabidek eguenean, abenduak 20, kultura etxean, 19:00.

► **Gabonetako argiak piztuko dituzte eta jaiotza irekiko da** eguenean, abenduak 20, Udaletxean.

### ELORRIO

► **Gabiria anaiei omenaldia** egingo diete Txintxirri Ikastolakoek domekan, abenduak 16, Arriola aretoan, 12:00etan.

### ESKORIATZA

► **Pakistango Aksu ibarraren gaineko** diapositiba emanaldia egingo du Joserra Eskibelek egubakoitzean, abenduak 14, Museo Eskolan, 19:00etan.

► **Elkartasun afaria** antolatu du Atxorrotx GKEk egubakoitzerako, abenduaren 14rako, Apotzagako elkartean, 21:30ean. Txartelak Urrestillan, Mirentxurenean edo Biterinean eros daitezke.

► **Helduendako ipuin kontaketa** egingo du Koldo Amestoik egubakoitzean, abenduak 21, Jose Arana ikastolan, 22:00etan. Saioa euskaraz izango da.

### OÑATI

► **Aloña Mendi elkarteko mendi taldeko federatu txartela** berritzeko azken eguna abenduaren 14a, egubakoitza, izango da. Aloña Mendiren bulegoan egingo da, 19:30etik 21:00etara.

► **Aloña Mendi elkarteko mendi taldeak** Murgia, Gorbeia eta Muruara irteera antolatu du abenduaren 16rako.

► **Olentzero egunean kalejira** egingo dute Oñatiko Musika Eskolakoek, eta parte hartzeko deia egiten diete oñatiar guztiei. *Olentzero, Ator, ator, Gau isila* eta *Gaueko izar* kantatuko dituzte. Entsegua abenduaren 19an izango da: 18:30-19:15. Kalejira abenduaren 24an irtengo da, Bidaurretatik, 18:00etan. 943 78 31 74.

► **Gabon egunean** abestera irtengo dira Txantxiku Ikastolakoak. Parte hartzaileei baserritar jantzita joateko deia egiten diete. Ikastolan elkartuko dira, abenduaren 24an, 12:00etan.

## JAIAK

### ESKORIATZA

► **Txistorra-jana, dantzaldia eta opari zozketa** egingo dituzte erretiratuen etxekoek eguenean, abenduak 20, 17:00etan.

### OÑATI

► **Errekaldeko herri eskolak jaialdia antolatu du** zapaturako, abenduaren 15erako, 17:00etan. Txotxongilo saioa eta askaria izango dira, besteak beste. Oñatiar guztiak daude gonbidatuta.

# Zinema

### ARRASATE

■ ALAI ZINEMA

***Intacto***
Egubakoitza: 19:00, 22:00.

***Scary Movie 2***
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ik. eguna: 19:00, 21:30.

### BERGARA

■ NOVEDADES

***Scary Movie 2***
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ik. eguna: 19:30.

***El fantasma y la sra. Muir***
Eguena, zine kluba: 20:00.

### OÑATI

■ SANTA ANA

***Scary Movie 2***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

***La banda del patio***
Domeka: 17:00.

***Very Important Perros***
Eguena, zine kluba: 20:00.

### EIBAR

■ UNZAGA

***Harry Potter***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

■ RIALTO

***Scary Movie 2***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 19:30, 22:15.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

### ELORRIO

■ ARRIOLA

***La maldición del escorpión de jade***
Zaptua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.

***Lagundu! Arrain bat naiz***
Domeka: 17:00.

***Mundo grúa***
Eguena: 20:15.

### GASTEIZ

■ GURIDI

***Harry Potter***
Egubakoitza, domeka, astelehena, martitzena, eguaztena eta eguena: 16:45, 19:30, 22:30.
Zapatua: 16:45, 19:30, 22:30, 01:15.

***El señor de los anillos***
Eguaztena eta eguena: 18:00, 21:30.

***Spy game (juego de espías)***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***Ratas a la carrera***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:15.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

***Algunas chicas cruzan las piernas cuando hablan***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:15.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

***American Pie 2***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***Sin noticias de Dios***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:15.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

***La zona gris***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domekatik martitzenera: 17:30, 20:00, 22:30.

■ MIKELDI ZINEMAK

***American Pie 2***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:15, 22:45, 01:15.
Astelehena eta martitzena: 17:30, 22:45.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:45.

***Ni una palabra***
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:30, 01:15.
Domekatik martitzenera: 17:15, 20:00, 22:30.

***Spy game (juego de espías)***
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:30, 01:15.
Domekatik martitzenera: 17:15, 20:00, 22:30.

***Princesa por sorpresa***
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:30, 01:15.
Domekatik martitzenera: 17:15, 20:00, 22:30.

***Harry Potter***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:15.
Domekatik martitzenera: 17:00, 19:45, 22:30.

***Amelie***
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:30, 01:15.
Domekatik martitzenera: 17:15, 20:00, 22:30.

***Moulin Rouge***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:15, 22:45, 01:15.
Domekatik martitzenera: 17:30, 20:15, 22:45.

***Scary Movie 2***
Egunero: 17:30, 22:45.

***La inglesa y el duque***
Egubakoitza eta zapatua: 20:15, 01:15.
Domekatik martitzenera: 20:15.

***Ratas a la carrera***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:15, 22:45, 01:15.
Domekatik martitzenera: 17:30, 20:15, 22:45.

***Fade - Freaks***
Astelehena: 20:15.

***Me casé con un extraño***
Martitzena: 20:15.
Domekatik eguaztenera: 17:30, 20:15, 22:45.

***Zu Zeu (zinema euskaraz)***
Eguena, abenduak 13: 20:15.

Martitzena, ikuslearen eguna.

■ FLORIDA-GURIDI

***En construcción***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domekatik eguaztenera: 17:30, 20:00, 22:30.
Eguena: 17:30, 22:30.

***El hijo de la novia***
Egubakoitza eta zapatua: 12:30, 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domekatik eguaztenera: 12:30, 17:30, 20:00, 22:30.
Eguena: 12:30, 17:30, 20:00, 22:45.

***Kandahar***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***Juana la Loca***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***El voto es secreto (j.b.a.)***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***Ni una palabra***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***Amelie***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***Gilda***
Eguena, zine kluba: 19:45.

■ STER ZINEMAK

***Ni una palabra***
Egubakoitzetik martitzenera: 12:35 (goizekoa), 16:10, 18:30, 20:40, 22:55, 01:05 (gauekoa).

***Spy game (juego de espías)***
Egubakoitzetik martitzenera: 12:10 (goizekoa), 16:45, 19:15, 21:40, 00:15 (gauekoa).

***Princesa por sorpresa***
Egubakoitzetik martitzenera: 12:05 (goizekoa), 16:05, 18:25, 20:45, 23:00. 01:15 (gauekoa).

***Harry Potter***
Egubakoitzetik martitzenera: 12:00 (goizekoa), 16:00, 19:00, 22:00, 01:00 (gauekoa).

***American Pie 2***
Egubakoitzetik martitzenera: 12:40 (goizekoa), 16:30, 18:40, 20:50, 23:05, 01:10 (gauekoa).

***Moulin Rouge***
Egubakoitza: 16:35, 19:30, 22:15, 00:40.
Zapatua: 22:15, 00:40.
Domeka: 22:15.
Astelehena eta martitzena: 16:35, 19:30, 22:15.

***El Mosquetero***
Egubakoitzetik martitzenera: 16:15, 18:20, 20:30, 22:40, 00:50 (gauekoa).

***Atlantis***
Egubakoitza: 16:20, 18:15, 20:10, 22:05, 00:05.
Zapatua eta domeka: 12:20, 16:20, 18:15, 20:10.
Astelehena eta martitzena: 16:20, 18:15, 20:10, 22:05.

***Ratas a la carrera***
Egubakoitzetik martitzenera: 12:30 (goizekoa), 16:25, 18:35, 20:55, 23:10, 01:20 (gauekoa).

***Anastasia***
Zapatua eta domeka: 12:25.

***Titan***
Zapatua eta domeka: 12:15.

Goizeko emanaldiak, zapatuan eta domekan.
Gauekoak, egubakoitzean eta zapatuan.

TXARRA:● ESKASA:●● BALEKOA:●●● ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

# KRITIKA

### SIN NOTICIAS DE DIOS

PUNTUAZIOA: ●●●

**ZUZENDARIA:** Agustin Diaz Yanes.
**AKTOREAK:** Victoria Abril, Penelope Cruz, Fanny Ardant.

Duela aste gutxi estreinatu da gure pantailetan *Sin noticias de Dios,* Agustin Diaz Yanes gidoilariak zuzendutako bigarren lana. *Nadie hablará de nosotras cuando hayamos muerto* thriller hiritar bortitz, bizi eta ausartarekin egin zuen debuta, eta benetan arrakatsatsua izan zen: 1995 urteko Goya sarietan zortzi Goya lortu zituen.

Zerutik eta infernutik etorritako bi aingeruren artean (bata ona: Victoria Abril bestea txarra: Penélope Cruz) sortzen den norgehiagoka kontatzen digu pelikulak. Biek burutik oso sano ez dagoen eta arazo larrietan murgilduta dagoen boxeolari baten arimaz jabetu nahi dute. Hau izango litzateke, hitz gutxitan, filmaren gai nagusia eta interesgarriena. Baina pelikulak baditu beste istorio txikiago batzuk ere, pertsonaia eta egoera ugariz beteta (zor bat kobratu nahi duten polizia harroputzak, zeruaren eta infernuaren arteko borroka, infernuan boterea lortzeko dagoen azpijokoa…) eta ondo garatu gabe daudenak: ez dute sendotasunik aurkitzen eta, gainera, ez dute balio istorio nagusia aberasteko, baizik eta nahasteko eta indarra galarazteko. Filmaren interesak goraka egiten du aingeruen arteko



harremanei heltzen dienean (etxean eta supermerkatuan sortutako gatazkak).

*Sin noticias de Dios* film luzeak baditu bere momentu onak eta distiratsuak. Ondo errodatua, zineman gutxi ikusten diren eszenak ikusteko aukera ematen digu. Esaterako, Victoria Abrilen saio musikalak, zuri-beltzean eginak, 40ko hamarkadako lookarekin jolasten du. Gainera, nazioarteko ekoizpena denez, bertan, ezaugarri desberdineko hainbat aktore eta interpretatzeko era ikusteko aukera dugu: Victoria Abrilek, Penélope Cruzek, Gael García Bernalek edo Fanny Ardant aktore frantses famatuak kolorea eta barietatea ematen diote filmari.

Laburpen gisa, esan dezakegu filma proposamen bitxia eta arriskutsua dela, eta erakargarria dela irudiari dagokionez. Alde txarrak aipatzerakoan, ostera, esan behar dugu gidoilariak ez duela hartutako arriskuak menderatzen jakin. Honela, ez hanka eta ez buru, eta ez gatz eta ez berakatz ez dituen lana atera zaio.

ANTONIO ZABALA

# 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Arrasate**
**Grupo San Juanen etxebizitza salgai**
Beheko solairua. Eguzkitsua. Hari musikala. Jantzita. Berrituta.
**943 77 08 15**

**Urbasa.** Urederra inguruan etxea salgai; beheko sua, eta abar. 80 m². 6.500.000 pta. 639 98 51 88.

**Oñati.** Logela bateko apartamentua salgai. Erdialdean. 943 78 01 09. Gauez.

**Bergara.** Martokuan etxebizitza salgai. Bi gela, sukalde berrituta, berogailua. 943 76 08 08 edo 629 46 47 22.

**Bergara.** Zubieta kalea 23an etxebizitza salgai. 943 79 42 65 edo 656 71 83 13.

**Oñati.** 90 m²ko etxebizitza garajearekin salgai. Premiazkoa. 26.000.000 pezeta. 943 78 05 96 edo 626 43 99 72.

**Eskoriatza.** 82 m²ko etxebizitza salgai. Garajea, berogailua. Jantzita. 943 78 70 75 edo 943 71 55 21.

**Bergara.** Zubiaurre kalean etxebizitza salgai. 943 76 33 78.

**Bergara.** Zubiaurre inguruan 80 m²ko etxebizitza salgai. Hiru gela, bi komun, igogailua, berogailu indibiduala. 630 50 56 16.

**Arrasate.** Zarugalden hiru gelako etxebizitza salgai. Lursail txiki bat du. 943 79 48 97.

**Bergara.** Koldo Elizalden etxebizitza handia salgai. 943 76 34 48.

**Oñati.** Santa Marina plazan etxebizitza salgai. 36.500.000 pezeta. 943 78 09 79.

**Arrasate.** Musakolan etxe handia salgai. Eguzkitsua eta lasaia. Lau logela, bi balkoi, gas berogailu indibidualarekin, igogailua. Erdi jantzita. 943 79 27 88 edo 626 36 55 56.

**Arrasate.** Erdialdean 96 m²ko etxebizitza salgai. Berrituta eta jantzita. Hiru gela, ganbara, igogailua… 943 79 87 95.

**Arrasate.** Altamiran etxebizitza handia salgai. Duplexa egiteko aukera. 652 70 97 79. Gauez.

### 102. EROSI

**Aretxabaletan** edo inguruan baserria erosiko nuke. 616 75 41 30 Iñaki.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Lekeitio.** Lorategia duen etxebizitza ematen da errentan. Bi logela bikoitz. 94 624 35 85.

**Aretxabaleta.** Etxe handia ematen da errentan. Lehentasuna: ikasleak eta langileak. 943 79 63 49. Gauez.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan ikasleendako. 943 79 98 30.

**Benidorm.** Levanteko hondartzaren pasealekuan apartamentua ematen da errentan. Itsasora bistak. 630 41 84 65.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Etxea hartuko nuke errentan. 687 50 18 06.

**Bergara** edo inguruan etxebizitza edo baserria hartuko nuke errentan. 943 76 11 01 edo 943 76 04 70.

### 105. ETXEAK OSATU

**Eskoriatza.** Sukaldea erabiltzeko aukerarekin logela ematen da errentan. 943 71 55 01.

**Arrasate.** Lagun bat behar da etxebizitza osatzeko. 650 89 12 20 edo 669 57 88 51.

**Bergara.** Sukaldea erabiltzeko aukerarekin gela bat ematen da errentan erdialdean. 699 18 75 68.

**Aretxabaleta.** Sukaldea erabiltzeko aukerarekin gela bat ematen da errentan. 627 64 27 13.

**Arrasaten** edo inguruetan logela bar behar dut errentan hartzeko. 605 73 41 76.

**Arrasate.** Eskola Politeknikotik gertu pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. 943 79 91 25.

**Arrasate.** Etxebizitza osatzeko bi lagun behar dira. 943 77 16 54.


| | | | |
|---|---|---|---|
| **1. ETXEBIZITZAK** | **3. LOKALAK** | **6. MOTORRA** | 803. EMAN |
| 101. SALDU | 301. SALDU | 601. SALDU | 804. HARTU |
| 102. EROSI | 302. EROSI | 602. EROSI | 805. TRUKATU |
| 103. ERRENTAN EMAN | 303. ERRENTAN EMAN | 603. ALOKATU | 806. GALDU |
| 104. ERRENTAN HARTU | 304. ERRENTAN HARTU | 603. KONPONDU | 807. AURKITU |
| 105. ETXEAK OSATU | 305. BESTELAKOAK | 604. BESTELAKOAK | 808. BESTELAKOAK |
| 106. BESTELAKOAK | | | |
| **2. GARAJEAK** | **4. LANA** | **7. ANIMALIAK** | **9. HARREMANAK** |
| 201. SALDU | 401. ESKAINTZAK | 701. SALDU | 901. AGURRAK |
| 202. EROSI | 402. ESKAERAK | 702. EROSI | 902. HARREMANAK |
| 203. ERRENTAN EMAN | 403. BESTELAKOAK | 703. EMAN | 903. DEIAK |
| 204. ERRENTAN HARTU | | 704. BESTELAKOAK | 904. BESTELAKOAK |
| 205. BESTELAKOAK | **5. IRAKASKUNTZA** | **8. DENETARIK** | **10. RELAX** |
| | 501. ESKAINTZAK | 801. SALDU | |
| | 502. ESKAERAK | 802. EROSI | |
| | 503. BESTELAKOAK | | |


Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako deiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 76 92 71**

**Zure iragarkia 60.000 lagunek irakurriko dute!**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 1.500 PTA (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.**

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**BERGARA**
**OZAETAN LOKAL KOMERTZIALA SALGAI. 160 M²**
**943 76 31 52**

**ELGOIBAR**
**MALAPE**
DISKO-BAR taberna saldu edo alokatu egiten da.
DEBA GARAIA
Rosario, 34-1 ezk
20870 ELGOIBAR
**943 74 42 83**

# 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Bergara.** Zurraderon garajea salgai. 1.750.000 pezeta. 943 76 04 87.

**Antzuola.** Frontoi bidean garajea salgai. 943 76 64 38.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Boni Laskurain kalean garajea ematen da errentan. 943 76 57 04.

**Arrasate.** Olarte kalean garajea ematen da errentan. 943 79 19 23.

# 3/ LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Maalako Errabala kalean 27 m²ko lokala ematen da errentan. 658 75 72 85.

**Bergara.** Urtarriletik aurrera lokala ematen da errentan. 77 m². Deitu arratsaldez. 943 76 20 42.

# 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Emakumea gertu etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. 677 00 12 46.

**Arrasate.** Emakumea gertu garbiketak egiteko, umeak zaintzeko… egun osoz edo orduka. 943 79 52 53 edo 626 57 80 33.

**Bergara.** Etxeko lanak egiteko emakumea gertu. 08:00etatik 10:00etara edo 13:00etatik 16:00etara. 943 76 29 52. Deitu 10:00etatik 13:00etara.

**Bergara.** Bi orduz Bergaran edo zapatuetan edozein herritan lan egiteko gertu. 619 38 88 73. Jose Luis.

**Arrasate.** Pertsona bat gertu etxean edo ospitalean zaharrak edo gaixoak zaintzeko. Gauez jarduteko gertu. 943 79 09 31.

**ARAMAIO**
**JATETXE BATEN SUKALDARIA ETA ZERBITZARIA BEHAR DIRA**
**945 44 50 86**
ORDUTEGI INTERESGARRIA

**ARRASATE**
**PERTSONA BAT BEHAR DA SUKALDEAN LAN EGITEKO PINTXOAK ETA OGITARTEKOAK EGITEN DAKIENA ETA BESTE PERTSONA BAT ZERBITZARI LANETARAKO.**
943 79 20 57
(Presazkoa da)

### 402. ESKAERAK

**Bergara.** Neska gertu garbiketak egiteko. Astean bi egunez, 15:00etatik 18:00etara. 943 76 36 68.

**Arrasate.** Emakumea behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 699 17 73 73.

# 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. ESKAINTZAK

**Eskola** partikularrak ematen dira: Fisika, Matematika, Informatika eta Elektronika. 619 86 97 76. Deitu 19:00etatik 22:00etara. Iker.

**Arrasate.** Lizentziadunak Lehen Hezkuntzako eskola partikularrak emango lituzke. 943 79 83 46.

**Arrasate.** DBHko laugarren mailako eskola partikularrak behar ditut. 943 79 06 24 edo 943 79 94 52. Trini.

### 502. ESKAERAK

**Arrasate.** DBHko lehenengo mailako eskola partikularrak hartuko nituzke. 943 79 61 31. Gauez deitu.

**Arrasate.** Lehen Hezkuntzako laguntza eskolak ematen dira. 649 22 51 07.

**Bergara.** Fisikako eskola partikularrak hartuko nituzke. 943 76 10 58.

# 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Audi 90** 2200 salgai. 300.000 pezeta. 943 76 47 77.

